

hiruka

231. zenbakia
2026ko maiatza



LAMIAKO ESKOLAREN ITXIERA

«Herri bat ginen gu»

Getxophoto

Irudi-jaialdia
berrabiaraziko
duen edizioa

20-23 | Hirudika

Erik Harley



«Pormishuevismoko
ereduak oso hurbil
aurkitu ditzakegu»

24-27 | Berbetan

Eztanda Jaialdia

«Helburua euskal
kultura sustatzea
eta herria egitea da»

32 | Kultura

GETXO ESZENA

kalean



09 Maiatza - 18 Uztaila
Mayo - Julio

09 Maiatza—Mayo /// 18:30

GOTA (*Txema Muñoz*)

Klowna, magia / Clown-magia

09 Maiatza—Mayo /// 19:30

LA LLEGADA (*Cía. Koilara Teatro*)

Klown-antzerkia / Clown-teatro

📍 Santa Eugenia plaza

16 Maiatza—Mayo /// 18:30

SOUL PROJECT

Dantza, zirkua / Danza, circo

23 Maiatza—Mayo /// 18:30

ATSOAK DANTZAN (*Pikor Teatro*)

Antzerkia / Teatro

30 Maiatza—Mayo /// 18:30

J.M. BRUTAL (*La Pez Teatro*)

Antzerkia / Teatro

06 Ekaina—Junio /// 18:30

TENET (*Eunioia Kolektiva*)

Zirkua / Circo

13 Ekaina—Junio /// 18:30

LORATZEN (*Zirkun zirko*)

Zirkua-musika / Circo-música

20 Ekaina—Junio /// 18:30

REFUGI (*Cía. Manolo Alcántara*)

Zirkua / Circo

27 Ekaina—Junio /// 18:30

EL GRAN FINAL (*Bucraa Circus*)

Clown garaikidea eta keinu-antzerkia / Clown contemporáneo y teatro gestual

04 Uztaila—Julio /// 18:30

GO GO & STAY STAY STREET

(*Mimo's Dixie Band*)

Ikuskizun ibiltaria / Espectáculo itinerante

Irteera / Salida: **Bizkaiko Zubia** / Puente Bizkaia
Helmuga / Llegada: **Santa Eugenia plaza** / Plaza Santa Eugenia

11 Uztaila—Julio /// 18:30

**ALONSO, EZINEZKO MANDATUEN MEZULARIA
ETA GALDUTAKO GUTUNA**

(*Hortzmuga Teatroa*)

Antzerkia / Teatro

18 Uztaila—Julio /// 18:30

IOI (*Haatik Dantza*)

Dantza / Danza

SARRERA DOAN / ENTRADA GRATUITA



Mugikortasun urriko pertsonentzako leku-erreserbak izango dituzten ikuskizunak
Espectáculos con reserva de espacios para personas con movilidad reducida



ADIN GUZTIENTZAKO PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN PARA TODOS LOS PÚBLICOS



AREETAKO GELTOKIA PLAZA (ANFITEATROA) / PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS (ANFITEATRO)

Eguraldia txarra eginez gero, Romo Eskolan
En caso de climatología adversa, en el Colegio de Romo



Informazio gehiago
Más información
www.getxo-kultura.eus/getxo-eszena-kalean

Antolatzailea / Organiza:

GETXO
KULTURA

Getxo
bizi ezozka

Babesleak / Patrocina:

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ELUSKO JAIPLARITZA
GOBIERNO VASCO
REGIÓN DE GOBIERNO
POLÍTICO DEL PAÍS
VASCOS


C
CIRCO
A ESCENA

Honen Kidea Sostoa/la de

PENKALE

Aurkibidea

- 4 Iritziak eta Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Sakonean: Lamiako Eskolaren itxiera
- 10 Herriak
- 20 Hirudika: Getxophoto 2026
- 24 Berbetan: Erik Harley
- 28 Eskualdeko agenda
- 30 Kakarraldone: Itsasadar ahaztua
- 32 Eztanda jaialdia
- 33 Aitor Fdz. de Martikorena: Sopelako Esaera Zaharren Txapelketako liburua
- 34 Kirolak
- 35 Iritziak eta horoskopoa
- 36 Mundukatuak
- 38 Hirukira olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 40 Lehen/orain eta Uribitakora
- 42 Atzera Begira
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba sozietatea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Izaro Garcia, Hodei Torres eta Ander Zarraga.

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino, Jon Artola eta Ohiane Azula.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Iñigo Astiz, Nerea Garcia Liste, Hodei Rodriguez Arrutia, Juan Luis Mugertza Unanue, Iñaki Larretxi eta Luka Melendez.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAK ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak



Getxo
bizi erakunde



Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Sopelako Udala



Plentzia
URAREN BIDEAK



Urdulizko Udala



Gortizko Udala



LEMOIZ
DENONA



Barrikako Udala



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Dragoiak

IÑIGO ASTIZ *Berriako kazetaria*



Zergatik dira amerikarrak dragoien beldur?». Ursula K. Le Guin idazleak galdera zoragarri horrekin izendatu zuen AEBetan helduen sorkuntzan irudimenak zuen harrera eskasari eskainitako hitzaldia 1974 urtean, eta are zoragarriagoa den esaldi batekin borobildu zuen bere tesia bertan, zeinak, bide batez, oihartzun egiten baitu sorginei buruzko euskal esaera zaharrarekin. «Dragoien existentzia ukatu ohi dutenak, azkenean, dragoi batek irensten ditu. Barrutik».

Ursula K. Le Guinen hitzetan, garai hartan, estatubatuarrek umekeriartzat jo ohi zituzten fantasiako lanak, eta joera horri aurre egiteko eskaini zuen hitzaldia. Ez dakit han giroa aldatu ote den, baina gaur egun, Euskal Herrian, susmoa dut ez ote duen errealismoak agintzen. Posibleen munduak. Egitateenak. Eta ez da nire susmo soila. Irakurle klubak gidatzen dituzten hainbat lagunek ere aipatu didatelako gauza bera.

Garaien arabera aldatzen dira gustuak. Hezkuntzaren arabera. Ohituren kausaz. Aurreko aldietan gailendutako joerekiko kontrastez... Hamaika izan daitezke motiboak, baina berezkorik ez dago hor ere. Eta, beraz, akaso, izan daiteke garaia Le Guinen galdera errepikatzeko. Zergatik dira euskaldunak dragoien beldur?

Maitasun ez-monogamikoa

NEREA GARCIA LISTE *Haszten kirol inklusiboa*



Humberto Maturana biologo eta idazlearen ikuspuntu ebolutiboaren arabera, poligamoak gara, bakoitza bere neurrian. Berez, promiskuoak gara gure bizitzan zehar pertsona bat baino gehiagorekin erlazionatzen garelako sexuafektiboki.

Monogamia ez da gure patrio biologiko egonkor bat. Eragile ekonomiko, politiko eta erlijiosoek sortutako eta indartutako ikaskuntza kulturala baizik. Duela milaka urte, erlijio judu-kristauak monogamia inposatu zuen arau kultural, jainkotiar eta dibinitatearen oinarri teokratiko gisa. Baina sexualitatea eta maitasuna sentsualtasunean eta samurtasunean oinarritzen da.

Samurtasunaren oinarria zaintzan, onarpenean eta bestearen legitimitatean eta askatasuna errespetatzean oinarritutako harremanak lantzea da. Bitartean, sentsualitateak erotismoa, jolasa, laztana, arreta eta askatasunez aukeratutako elkarrekiko presentzia dakartza. Pentsamolde patriarkalean, aldiz, domeinsumisioa binomioak gidatuko ditu giza harremanak.

Samurtasuna eta sentsualtasuna galtzen direnean, fidelotasuna arazo bihurtzen da. Maitasuna ezin da ez exijitu ez inposatu. Maitasun-bizikidetzeta bestea desjabetzean hasten da; horren ondorioa, beste pertsona gure kontrolpetik at dagoela onartzetik hasten da.

Puntua eta kontrapuntua **Kanpomartxo**

Euskara jantzita



*Herri bat ez da egiten
euskaldun debalde,
ta bestela Berbotsei
egiozu galde.
Kanpomartxon elkartuz
heldu zein haur talde,
aurten bete dezagun
Asua aldez alde,
Erandioren eta
euskararen alde!*

**IMANOL
URIA
ALBIZURI**
Getxo

*Kanpomartxoa dugu
bertatik bertara.
Berbotsek deitu gaitu
aurten Asuara.
Garai hartan bezala,
kantuka sutara,
joango gara guztiok
erromeriara.
Umore ona jantzi;
jantzita euskara.*

**JULEN
IBÁÑEZ
MUGERZA**
Getxo



Garazi Arruti Suhiltzailea eta aizkolaria

«Plazetara itzultzeko asmoa dut; gogotsu nago berriro ere lehiatzeko»



Lesio baten ondorioz aizkora utzi eta herri kiroletatik erretiratu bazen ere, Garazi Arrutik erreferente izaten jarraitzen du, bai plazan zein bere lanbidean ere.

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Duela bi urte lesio baten ondorioz aizkora utzi eta Euskal Pentatloia alde batera utzi behar izan zuten Arrutik. Hala ere, oraindik, «maila lasaigoan», Getxo Herri Kirol Taldean entrenatzen jarraitzen du. Talde horretan hasi zuen bere ibilbidea 2009 inguruan. «Urdulizen bizi arren, ni bilbotarra naiz, baina lagun batek probatzeko esan zidan, eta hasieratik oso gustura egon nintzen, eta ordutik daramat beraiekin; niretzat familia baten modukoa da», azaldu du Arrutik.

Dioenez, bera hasi zenetik emakumeek herri kiroletan duten presentzia izugarri aldatu da, eta hori bera baino lehen egon ziren emakumeek irekitako bideari esker ere izan zela aitortu du: «Gu hasi ginenean lauzpabost neska ginen, eta erakustaldietan eta txapelketetan beti ego-

ten ginen berdinak. Bidea luzea izan da, baina, zorionez, neska asko animatu dira, eta plazetan parekotasun nahiko handia lortu dugula esango nuke».

Zaletasunean bezala, ogibidean ere indarra eta gaitasun fisikoa behar-beharrezkoak ditu; izan ere, bera suhiltzailea da Artazako parkean. «Emakume suhiltzaile izatea oso garrantzitsua iruditzen zait. Gaztetan ez nuen horrelako erreferenterik izan eta gaur egun eskolara joaten garenean hitzaldiak ematera, neska gazteek ni suhiltzaile lanetan ikustea oso inportantea dela iruditzen zait; ikus dezaten emakume bat ere gai dela lan hori egiteko».

Dioenez, eguneroko lanean, pertsona nagusiei laguntza, erreskateak, auto istripuak eta horrelakoak izaten dituzte gehienbat. «Suak ere izaten ditugu, baina lehen baino gutxiago izaten dira, eta baso-suteak denboraldia denean izaten dira», zehaztu du.

«Txingekin eta pisu handiekin ezin naiz lehen bezala ibili, baina jarraitzeko asmoa dut, mikrofonoa hartuta bada ere, kar-kar. Izena eman dut aurren ere eta ikusiko dugu zer egin dezakegun», adierazi du gogotsu. ◀

An aerial photograph of a residential complex. In the foreground, there is a playground with colorful equipment and a paved area with blue and green circular markings. A purple building is prominent in the middle ground. In the background, several multi-story apartment buildings are visible, along with a church featuring a bell tower. The sky is overcast with grey clouds.

**«Herri bat
ginen gu
eta hau
gure historia
eta gure
ohiturak
ziren»**



Otsaileko arrasti batean, Lamiako Eskolako patioan ume batzuk Maskarada Txiki entseatzeko ari dira, urtero bezala; baina aurten badago zerbait airean: baliteke hau azken aldia izatea. Eraikina hor geratuko da, baina barruan sortu den guztia –harremanak eta ohiturak– desegiten hasi da, itxieraren albisteak auzo oso baten egunerokoa kolokan jarri duenetik. Izan ere, Lamiako Eskola ez da inoiz ikasgela huts bat izan.

TESTUAK: **IZARO GARCIA** • ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Badira lekuak, denboragaz, harreman bihurtzen direnak; eguneroko keinu, erritu eta oroitzapenen bidez, komunitate bat ehuntzen dutenak. Lamiako Eskola halako bat izan da. Eta horregatik, haren itxiera kontakizun kolektibo baten etenaldi bezala ulertu behar da.

2026ko urtarrilean iritsi zen berria. Baina, askoren ustez, berria baino gehiago, baieztapena izan zen. Zurrumurruak aspalditik zebiltzan airean. «Hau guztia bazekiten abendua baino lehenagotik, baina isilpean mantendu zuten», gogoratu du Juankar Alvarez IGEko (Ikasleen Gurasoen Elkarte) presidentea, frustrazioz.

Administrazioak «integrazioa» eta «ekitate» aipatu ditu arrazoi gisa. Hala ere, Leioako Udalak eta Hezkuntza Sailak ez dute erreportaje honetan parte hartu nahi izan. Horrek areagotu egin du auzokideen ezinegona; «abandonatuta eta ahaztuta» sentitzen direla diote.

«Txapuza bat izan da, txapuza bat da eta txapuza bat izango da», dio Ana Arteagabeitiak, bi ikasleren amak, amorruari eutsi ezinik. Beste batek, berriz, irudi zehatzagoa eman du: «Ustezko laguntza hori haizea bezalakoa da: sentitu egiten dugu, baina ez dugu ikusten».

GAINBEHERA BATEN KRONOLOGIA. Lamiako Eskolaren itxiera ez da bat-bateko kolapso baten ondorioa. Aitzitik, urteetan zehar metatutako erabakien eta inertzien emaitza da.

Adelaida Otxoa zuzendari ohiak ondo gogoratzen du hasiera. 1994an iritsi zenean, bestelako errealtate batez egin zuen topo: ikasle gutxi, hizkuntza-ereduaren aldatetako sortutako zalantzak, eta aurreiritzi sozialak. Hala ere, egoera horretan bertan abiatu zen aldaketa.

Pixkanaka, hezkuntza-eredua eraldatzen hasi ziren. Eskola eremu itxi bat izatetik sare ireki bat izatera igaro zen: familiek parte hartzen zuten, ikaskuntza dialogikoa ezarri zen, eta proiektu pedagogiko propio bat eraiki zen. «Denok ezagutzen genuen elkar; komunitate bat ginen, familia baten antzera», gogoratu du. Ikasle ohiek ere antzera bizi izan zuten: «Gutxi ginenez, familia bat bezala ginen, eta horrela bakoitzari denbora gehiago eskaintzeko aukera zegoen».

Baina proiektu horrek oinarri bat behar zuen: egonkortasuna. Eta horixe izan da gehien huts egin duen elementua. Irakasleen etengabeko joan-etorriek ezinezkoa egin dute epe luzeko lanari eustea. «Holako hezkuntza dinamikoak eskaintzen duten eskoletan beharrezkoa da irakasle finkoak egotea», ohartarazi dute klaustroko kideek. Bestela, urte bakoitzaren hasieratik berriro eraiki behar izaten da.

Denboragaz, estigmatizazioak ere bere pisua izan du. Aurreiritziek familien erabakiak baldintzatu zituzten, eta horrek matrikulazioaren beherakada azkartu zuen. Ikasle ohien arabera, «Lamiako Eskolari buruz aurreiritzi asko daude; badirudi atzerriko jatorria duten ikasleei beldurra zaiela, baina hezkuntza bera da guztientzat». Horrela, espiral bat sortu zen: ikasle gutxiago, baliabide gutxiago; baliabide gutxiago, proiektu ahulagoa.



Lamiako Maskaradak antzinako materiala eman zion Maskarada Txikiari.

«Lamiako Eskolari buruz aurreiritzi asko daude; badirudi atzerriko jatorria duten ikasleei beldurra zaiela, baina hezkuntza bera da guztientzat»

DORKAITZ GARCIA
ESKOLAKO IKASLE OHIA

Eta espiral horrek ez du soilik kopuruetan eragin zuzena izan, eskolaren izaeran bertan ere arrastoa utzi du. Komunitatea izan zenaren zati handi bat desegiten joan da, gutxinkaka-gutxinaka, oharkabean.

«Momentu honetan eskolak ez du izaerarik. Hutsik dago», dio irakasle batek. Hori da egungo egoera; hau da, 60 ikasle inguru, eraikin handiegia, eta «ahultzen ari den komunitatea».

Beste zerbait izan zen

Zenbakiak ez dute azaltzen Lamiako zer izan den. Eta hori da, neurri batean, gatazkaren muina. «Denborarekin komunitate batean bihurtu ginen», dio Adelaida Otxoak. Ez da metafora, eskola bera harremanetik eraiki zen: familiek, irakasleek eta ikasleek elkarregaz parte hartzen zuten ikaskuntza-prozesuan.

Zuzendari ohiak argi dio: «Gure lehenengo lorpena familiak eskolaren parte izatea izan zen». Horretarako, espazioak beraiek ere eraldatu zituzten: liburutegi irekiak, familientzako gelak, eguneroko topaketak. «Eskola ez zen soilik irakasteko toki bat, gure harteko harremanak sendotzeko lekua ere bihurtu genuen».

Otxoak nostalgia pixka batez gogoratu ditu une horiek: «Eskola hurbilagoa zen». Eta eskolak bere dinamika propioa zuen; hots, tertuliak, antzerkia, ikastaroak edo auzoko jarduerak antolatzen ziren: «Guraso batek, adibidez, ez bazekien irakurtzen, guk irakurtzen irakasteko tailerrak egiten genituen, oso polita zen».



50 urte betetzen dituen honetan, eskolak bere ateak itxiko ditu.



«Gure lehenengo lorpena familiak eskolaren parte izatea izan zen»

ADELAIDA OTXOA
LAMIAKO ESKOLAKO ZUZENDARI OHIA

Ikasle ohiek ere hala bizi izan zuten. «Pozik joaten ginen, eta gero ez genuen alde egin nahi», dio Dorkaitz Garciak. «Beti sortzen zen zerbait egiteko aitzakia. Klaseak amaitzean, ordutegi zurrunik gabe, liburutegian geratzen ginen; eta beti bazeagoen gurekin gelditzen zen norbait».



Maskarada Txiki Dioni Andres eta Izarne Quintana

«Hau kultura da %100ean»

Lamiako ulertzeko, ezinbestekoa da Maskarada Txiki ulertzea. Ikasle batzuek antolatutako sorpresa bat izan zen, atsedendaldietan prestatua. Baina urteakaz, auzoaren ikur bihurtu da. Eskola osoa inplikatzeko da: txikienek «herria» bezala antzezten dute, nagusiek, berriz, pertsonaia nagusiak bezala.

Antolaketa bera ere prozesu pedagogiko baten parte da. Lehenik, aurkezpena egiten zaie berriei, istorioa eta pertsonaiak ulertzeko; ondoren, rola banatzen dira adinaren arabera, nagusienetik hasita. Gero, entseguak hasten dira. Pixkanaka, pieza guztiak lotzen joaten dira, azken emaitza kolektibo bat eraiki arte.

«Hau kultura da %100ean», dio Dioni Andres antolatzailleak. Baina, batez ere, transmisioa da: «Hemen parte hartzen duten umerek, hurrengo egunean bertan, Maskarada handian daude; haiek dira errelebo». Izan ere, Maskarada Txikiak belaualdien arteko «zubia» eraikitzen du, kulturaren jarraipena bermatzen duena: «Bizi dute. Interesgarriena da haiek honen parte direla sentiaraztea, hau eurena dela». Eskolak ahalbidetzen zuen transmisio hori modu naturalean gertatzea; hots, egunerokoaren barruan, umeen ordutegiaren barruan, esfortzu gehiegi eskatu gabe. Horregatik, auzoaren memoria bizirik mantentzeko modua da.

Baina orain, transmisio hori kolokan dago. «Maskarada Txikia eskolatik kanpo eramatea kolpe latza da», dio Izarne Quintanak, beste antolatzailleetako batek. Eskola barik, zaila izango da antolaketa eta beraz, konpromisoa: «Etorbizuna zaila ikusten dut, eskola-ordutegitik kanpo eskatzen duen konpromiso mailagatik». Egungo umeen agenda estuan, halako proiektu batek lekua aurkitzea ez da erraza.

Aitzitik, gogorrena «umeei ilusioa kentzea» izango da; antolatzailleen arabera, «Ume batzuek etxera iristean gurasoei galdetu diete ea datorren urtean eskolara huts egin ahal izango duten entseguetara etortzeko; eraikina hemen egongo dela pentsatuta, askok etortzen jarraituko dutela uste dute».

Baliteke aurrera jarraitzea, beste espazio batzuetan, beste modu batera. Baina galdera ez da ea egingo den ala ez. Galdera da ea berdinean egingo den. Izan ere, eskolarik gabe, agertokia ez ezik, erroa ere aldatuko da. ◀



«Umeek gurasoei galdetu diete ea datorren urtean eskolara huts egin ahal izango duten entseguetara etortzeko; eraikina hemen egongo dela pentsatuta, etortzen jarraituko dutela uste dute»

DIONI ANDRES
ANTOLATZAILLEA



«Maskarada Txikia eskolatik kanpo eramatea kolpe latza da»

IZARNE QUINTANA
ANTOLATZAILLEA

Isiltzen den ahotsa

Eskola baten itxierak ez du kolpe bakarra ematen; pixkanaka zabaltzen da, egunerokoan eta modu sinbolikoan. Lehenik, praktikoa dator: distantziak. «Orain ordu erdi lehenago atera beharko gara etxetik», dio guraso batek.

Baina hutsune handiena ez da logistikoa. «Ez dago harrera planik, ezta laguntza argirik ere. Bakarrik gaude», diote familiek. Eta hortik sortzen da galdera nagusia: zergatik itxi da Lamiako?

Erantzun ofiziala sinplea da; auzoarena, konplexuagoa: planifikazio falta, gardentasun eza, eta bestelako interesen susmoa. «Baliabideak dituen auzo bat saltzen ari gara, baina eskola itxi egingo dute», kexu da Ana Arteagabeitia, administrazioaren lehentasunak kolokan jarritz.

Izan ere, itxiera ez da kasu isolatua. Sindikatuek ohartarazi dute eskola publikoa ahultzten ari dela, eta ziurgabetasuna hedatzen dela. Baina datuetatik harago, badago galtzen den zerbait: «Oso zoriontsu izan ginen eskola garaian», aitortu dute ikasle ohiek. Hori da geratzen den ondarea.

Maskaradako Ieltsu pertsonaiak dio: «Herri bat gara gu eta hau gure historia eta gure ohiturak dira». Baina Lamiakoren kasuan, esaldia iraganera lerratzen da ia oharkabeen: «Herri bat ginen gu». Eta ñabardura horretan dago galera osoaren pisua. Ikasle ohiek diote «interes administratibo» bat bihurtu direla, lehen ziren hori lausotzen ari dela.

Lamiako herri bat izan da, eta bada oraindik. Baina bere ohiturak eta bere errituak, baliteke iraganaren esku geratzea. Eta, behar bada, hori da kolperik handiena: ez dela hau tu propio baten ondorio. ◀





Hasi motorrak berotzen, hemen datoz jaiak!

Negu luzearen ostean, kalera atera eta bizitza ospatzeko una da daborduko! Udako jaien segidari hasiera emateko oraindino aste batzuk falta dira, baina eskualdeko lehen ospakizunak Getxoko Andra Mari auzoan egingo dituzte. Beraz, prestatu zapia eta txosnako edalontzia eta etorri gurekin ospatzera!

Aurten, San Isidro jaiak maiatzaren 9an abiatuko dira dantzak protagonista izango di-

Kontzertuak Ostikada, Siku, Pinaka Taldea, Bidean Erromeria, Mairi eta Arene 6 izango dira Andra Mariko aparkalekuan egingo diren emanaldietako protagonistak.

tuen egitarauagaz. Ostean, egitarau oparoena maiatzaren 14tik 17ra bitartean egingo dute. Egun horietan adin guztietako auzotarrentzako ekintzak prestatu dituzte: kontzertuak, umeentzako ekintzak, grafitien murala, suzko behia... Besteak beste, palestinar herriagaz elkartasuna izango da aurtengo jaietako ekintzen ardatza, eta, horretarako Palestinaren aldeko herri-bazkaria eta hitzaldia egingo dituzte, besteak beste. ◀

Maiatzaren 9tik 17ra

Maiatzak 9, zapatua

- 17:00** Kalejira dantza taldeakaz, Malakatetik kiroldegiraino.
- 17:30** Umeen dantzialdia, kiroldegiko aparkalekuan.
- 19:00** Dantza-plaza Getxoko taldeakaz, Malakaten.

Maiatzak 14, eguena

- 16:30** Eskupilota erakustaldia. Kiroldegian.
- 17:00** Txupinazoa eta pregoia, Geroako eta Andra Mariko ikasleak, eta Hauspoa Triki Taldearen eskutik Malakaten.
- 17:30** Umeentzako tailerrak, Argia fundazioagaz, Malakaten.
- 18:30** Txokolatada, Malakaten.
- 19:00** Hitzaldia: Al Kamandjâti. Harria soinu eta soinua harri. Hizlariak: Iñaki Lagos eta Luix Artola, Khalas! Palestina-Urbe Kosta taldearen eskutik, Bentan.
- 20:00** Kontzertuak (Barne-barnetik): Ostikada eta Siku, aparkalekuan.

Maiatzak 15, barikua

- 17:30** Parkean olgetan (Eusfera eta Sendi elkarte): Euspazioa, Malakaten.
- 17:30** Grafitiak, umeentzako grafiti tailerra eta musika (Andra Mari Graff), Maldagan kaleko horman.
- 18:00** Mus txapelketa, Bentan.
- 18:30** Patinaje festibala, Show Getxo Clubaren eskutik, Kiroldegian.
- 19:00** Agurra Dantza Taldearen Buruhandiak, Malakaten.
- 20:00** Kantari Kanta Kalejira, Bentatik.
- 21:30** Suzko behia, Bentan.
- 22:45** Kontzertuak: Pinaka Taldea eta Bidean erromeria, aparkalekuan.

Maiatzak 16, zapatua

- 11:30** Egurrezko jolasak, Malakaten.
- 12:00** Ginkana, Andra Mari Mendi Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Kiroldegian.
- 13:00** Herri Kirolak (Getxoko Herri Kirolak), aparkalekuan.
- 15:00** Herri- bazkaria (txartelak salgai

daude auzoko tabernetan).

- 17:30** Irudien bingoa: Euspazioa, Malakaten.
- 19:00** Umeentzako zinema, Bentan.
- 20:00** Munstro sionisten martxa, Khalas! Palestina-Urbe Kosta taldeak antolatuta, Kiroldegitik.
- 21:00** XXX. Herrien Jaialdia. Gonbidatuak: Herbeheretako Enschede herriko De Krekel taldeko musikariak eta dantzariak, kiroldegian.
- 21:30** Suzko behia, Bentan.
- 23:30** Kontzertuak: Mairi eta Arene 6, aparkalekuan.

Maiatzak 17, domeka

- 10:00** Herri-azoka, aparkalekuan.
- 11:30** Truke-azoka, Andra Mariko Gurasogunek antolatuta: jostailuak eta kromoak, kiroldegian.
- 12:30** Bertso-saioa, aparkalekuan. Bertsolariak: Julen Ibañez, Aritz Landeta, Jone Uria eta Peru Vidal. Gai-jartzailea: Nagore Landeta
- 12:30** Fanfarrea, Malakatetik.

Jokin Aspuru Getxophoto 2026

«'Reset' da leloa; sistema berrabiaraziko dugu, gauzak beste modu batean egiteko»

ANDER ZARRAGA ▶

Getxophotok 20 urte betetzen ditu eta edizio berezi honetarako Jokin Aspuru jaialdiko zuzendariagaz egon gara urteotan jaialdiak izan dituen aldaketez, gai nagusiaz, antolakuntzaz eta ospakizunaren nondik norakoez hitz egiteko.

Zorionak lehenik eta behin, 20 urte ez dira nolanahikoak. Nola lortu duzue hainbeste urtez gogo eta ilusioa mantentzea? Ez da erraza, guretzat zailena freskotasan hori mantentzea da. Horregatik, gure lan-politikan taldea berritzen joaten gara. Zuzendaritza artistikoaz gain, langileak edo muntatzaileak aldatzen ditugu; horrekin ideia berriak, freskotasuna, etor dadin bilatzen dugu. Zuzendaritza artistikoan, adibidez, komisarioa berritzen dugu. Errazagoa litzateke betikoekin lan egitea, baina jaialdiarentzat hobea da etengabe berritzea.

Maria PTQK komisarioaren hirugarren eta azken urtea izango da hau; nola definituko zenuke bere zikloa? Borobila izan da. Guk normalean trilogiekin egiten dugu lan: «Pausa» arnasa hartzeko izan zen, «Play» aktibatzeko, eta aurtengoa, «Reset», sistema berrabiaraziko dugu, gauzak beste modu hobe batean egiteko. Horren inguruan lan egin dute artista guztiak.

Aurten Asanblea Orokorra ere egingo duzue, urtebetetze ospakizun modukoa izango da? Horrelako zerbait bai. Topaketa bat antolatuko



«Guk irudi-jaialdi gisa definitzen dugu geure burua, ez bakarrik argazki-jaialdi gisa. Adimen artifizialak dena aldatuko du, baina beste tresna bat izango da irudiak sortzeko. Gu, beti bezala, horri buelta bat ematen saiatuko gara»

JOKIN ASPURU
GETXOPHOTOKO ZUZENDARIA

«Adimen artifizialak dena aldatuko du, baina beste tresna bat izango da irudiak sortzeko. Gu, beti bezala, horri buelta bat ematen saiatuko gara»

dugu jaialdiaren jarraitzaile, bisitari, egungo komisario eta baita aurreko edizioetako komisarioekin ere. Getxophoto ekimen independente bat da, kultur elkarte batek antolatua, eta urtero zerotik hasten gara finantzaketa bilatzen, eta uste dugu garaia dela gogoeta bat egiteko eta jaialdiaren etorkizuna denen artean erabakitzeke. Ospakizun serio bat izango da.

Horrez gain, urte hauetan bildutako legatua publikoari zabalduko diozue, ezta? Bai. Baretetik, gure 20 urteko artxibo digitala aurkeztuko dugu. 20 urteotan mundu osoko artistak pasatu dira guretik, eta hori guztia publiko egitea esku-zabaltasun keinu bat da, azken finean diru publikoarekin finantzatu garelako. Bestetik, erakusketa fisiko bat egingo dugu Algortako azokan, jaialdiaren lehenengo erakusketa hantxe egin baikenuen eta guretzako oso gune berezia baita.

Eta zer gertatuko da Portu Zaharreko Sirenoagaz? Agur moduko bat egin nahi diogu. Eskultore bati eta eskultore bati sirena forma bera duen photocall bat egiteko eskatu diogu, photocall batean erabiltzeko. Omenaldi txiki egin nahi diogu.

Zeintzuk izango dira gune nagusiak? Begoñako Galeriak gune garrantzitsua izango da aurtengo jaialdian ere, baita Algortako azoka ere. Gainera, ibilbide gidatuak ere errepikatuko ditugu, eta herriko tabernekin elkarlanean ere arituko gara. Azken finean, jaialdia argazkiez gain, herrian paseatzeko eta gauzak modu lasaigoan begiratzeko aitzakia bat da. ◀

Getxophoto 2026
RESET
Maiatza/Mayo 28 - Ekaina/Junio 21
Nazioarteko Irudi Jaialdia
Festival Internacional de Imagen
www.getxophoto.com
20 urte/años

2025 REC
2024 Play
2023 Etena
2022 Imajinatu
2021 Elkarbanatu
2020 Kalera!
2019 Homo Sapiens-ostea
2018 Gatazka-ostea
2017 Globalizazio-ostea
2016 Denbora
2015 Bidaiak
2014 Borroka
2013 Ametsak
2012 Umeei gorazarre
2011 Zaharrei gorazarre
2010 Aisiari gorazarre
2009 Asiako fikzioak
2008 Mutazioak
2007 Autoirudikapena

Abu Ghraib, Agnieszka Sejud, Ainhoa Resano, Alban Lécuyer, Alberto García-Alix, Alejandra Carles-Tolra, Alejandro Acín, Alejandro Cartagena, Alejandro «Luperca», Morales, Alessandra Sanguinetti, Ali Esлами, Ambroise Tézenas, Amir, Noemi, Qutaiba, Ali, Mustafa & Raoul, Amit Sha'al, Amy Chang, Amy Friend, Ana Galán, Ana Núñez, Anais López, Ananké Asseff, Andrea Muniáin, Andrea Sendón, Apian, David Horvitz, David Levinthal, Denis Darzacq, Diego López Calvin, Dina Kelberman, Blanca Munt, Bohncang Koo, Boushra Almutawakel, Carlos Murillo, Carlos Ayesta & Guillaume Bress, Carlos Terreros, Cecilia Paredes, Christian Rodriguez, Clare Strand, Claudia Gori, Clément Briand, Clemente Bernad, Corinne Vionnet, Felix Schöppner, Feng Li, Fernando Maquieira, José Ramón Ais, Josep Echaburu, Josh Begley, Joy Buolamwini, Juan Carlos Tomasi, Juan Covelli, Juan Gómez, Juan Valbuena, Jui, Spinatsch, Julián Barón, Julien Mauve, Mandy Barker, Mani Sriwanichpoom, Manuel Vázquez, Manuela Lorente, Marco De Mutiis, Marcos López, Marcos Zegers, Margaret M. De Lange, Maria Portaluppi, Michal Solarski, Michalina Kac, Miguel Leach, Miguel Tejero, Miguel Trillo, Mikel Bastida, Mikel Eskauri, Mishka Henne, Mitsutoshi Ha, Mark Dorf, Mark Formanek, Mark Lee, N, Nadav Kander, Hermanos Zubiaurre, Jonathan Hobin, Hiru Kolektiboa, Jongsma + O'Neill

Lamiakoko jaiak egitarau oparoagaz datoz

Lamiako prest dago berriro ere bere jai giro berezia kalera ateratzeko. Maiatzaren 29tik 31ra bitartean, auzoak adin eta gustu guztietarako egitarau zabala izango du.

Jaiari hasiera ofiziala barikuan, maiatzaren 29an, emango zaie, ohiko txupinazogaz, eta hortik aurrera auzoak kolorez eta mugimenduz beteko da. Egun berean, balkoi lehiaketak eta Lamiakoko Maskaradaren lehen agerraldiak emango diote izaera berezia hasierari. Maskarada, zalan-tza barik, egitarauko ardatz nagusietako bat da: hiru zatitan banatuta, kaleak zeharkatuko ditu, parte-hartzaileak baserritarrez jantzita eta ikusleak giroan murgiltzera gonbidatuz. Gauean, musika eta erromeriak hartuko dute lekukoa, jai giroa goizaldera arte luzatuz.

Zapatua ekintza ugariz beteta dator, eta egun osoan zehar ez da atsedunik izango. Goizetik bertatik sukaldaritza-lehiaketak eta kirol jarduerak izango dira protagonistak, hala nola emakumeen pala txapelketa edo lapiko lehiaketa ezaguna, parte-hartzaile ugari biltzen dituena urtero. Eguerdian, triki-panderoen doinuek giroa berotuko dute, eta kaleak musikaz beteko dira. Arrastian, gainera, txorizo-jana izango da bertaratzen diren guztientzat. Hori gutxi balitz, gauean ere jai-giroa sumatuko da; izan ere, kontzertuak eta musika saioak izango dira nagusi.

Domekan, azken egunean, erritmoa ez da apalduko; alderantziz, jaiari amaiera borobila emateko egitarau bete-betea prestatu du jai-batzordeak. Kalean sukaldatutako plateren lehiaketa, dantza-ekitaldiak eta herri kirol erakustaldiak izango dira ikusgai. Umeentzako jarduerak ere tarte berezia izango dute, puzgarriakaz eta mozorro-lehiaketagaz. Arrastian, playback txapelketak giro lehiakorra ekarriko du, baina barre algarak baita! Egunari amaiera emateko, ohiko sardinaren lur-ematea egingo da.

Tradizioak eta berrikuntzak eskutik helduta doaz, eta Maskaradak, beste behin ere, jaiaren bihotza markatuko du. Etorri, parte hartu eta gozatu! ◀



Egitaraua

Maiatzak 29, barikua

- 16:30** Txupinazoa eta 2026ko San Maximoko Jaieen hasiera.
- 17:00** Lamiakoko jaietako Balkoi, Argazki eta Marrazki Txapelketaren hasiera.
- 17:30** Lamiako Maskaradaren lehenengo zatiaren hasiera, Putzegilearen biribilgunetik.
- 18:00** Lamiako Maskaradaren bigarren zatiaren hasiera (Lamiakoko metro geltokiaren ondoan). Mari, Sugaar eta beste hainbat pertsonaia dantzan ibiliko dira auzotik.
- 22:30** Lamiako Maskaradaren hirugarren zatiaren hasiera, lizaren ondoan. Lehenago joan lekua hartzera!
- 00:00** Erromeria Seittu taldearen eskutik.

Maiatzak 30, zapatua

- 08:00** XI. Lapiko Txapelketa, Merkatarien Elkartearen laguntzagaz. Txosnan eman behar da izena.
- 10:30** III. Emakumeen binakako Pala Txapelketa, eskolako frontoian.
- 11:00** Puzgarriak eta jolasak, adin guztientzako, metro-geltokian.
- 13:30** Igel-txapelketa, txosnan.
- 14:00** Lapikoen aurkezpena, txosnara

hurbildu zuen emaitzak ikustera!

- 16:00** XI. Lapiko Txapelketaren sari-banaketa.
- 20:00** Txorizo-jana txosnan. Hurbildu zaitzete!
- 21:30** Kontzertua LSB taldearen eskutik.
- 00:00** Festa-giroa Iban-en eskutik.

Maiatzak 31, domeka

- 10:30** V. Plater Irekiko Txapelketa. Kalean sukaldatutako zure platerik onena presatu!
- 11:00** San Maximoko patroiares meza.
- 11:00** Umeentzako puzgarriak, metro-geltokian.
- 11:45** Lamiakoko Txikiak Txikik antolatutako euskal dantza-ekitaldia. Hurbildu ikustera!
- 12:30-13:30** Argazki zein Marrazki Txapelketako edukia entregatu txosnan.
- 14:00** Herri kiroletako erakustaldia.
- 14:30** Zure platera txosnan aurkeztu!
- 16:30** Lamiakoko XI. Mus Txapelketa, Nagusien Etxean
- 17:30** Umeen mozorro lehiaketa.
- 18:00** Lamiakoko XIX. Playback Txapelketa.
- 20:00** Nagusien mozorro lehiaketa.
- 21:00** Txapelketen sari banaketa.
- 22:00** Sardinaren lur-ematea eta 2026ko Lamiakoko jaiari amaiera.

Getxo eta Leioa Itsasadarraren azpiko tuneleko lanak

Tunela egiten hasteko lehen lanak esleitu ditu Aldundiak

277 milioi euroko balioagatik adjudikatu ditu Artatza parkeari dagokion proiektuaren lehen lotea. Subflubiala EZ plataformak mobilizazioak iragarri ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakiz, Artatza parkeari dagokion proiektuaren lehen lotea Ferrovialek gidatutako enpresa talde bati esleitu diote 133 milioi euroren truke. Bigarren lotea, Eskumaldeatik tunela zultzeari dagokiona, Nortúnel, Geotunel eta Tunelan enpresek osatutako UTEari adjudikatu diote 144 milioi euroren truke.

Erabaki horren aurrean Subflubiala Ez plataformak «sekulako arduragabekeria» gisa deskribatu du adjudikazioakaz jarraitzea. Haien ustez, proiektua judizializatuta dagoenez, Aldundiak «indemnizazio itzelak» ordaindu beharko lituzke epaileek lanak azkenean gelditzea erabakiko balute. Hori dela eta, herritarrei dei egin diete hurrengo mobilizaziotan parte hartzeko. Batetik, kontzentrazioa egingo dute maiatzaren 5ean Foru Aldundiaren Jauregiaren aurrean, eta, bestetik, uztailearen 4an eta 5ean Artatza parkean akanpada egingo dutela aurreratu dute, «gune kuttun hau defendatzeko dugun intentzioa argi erakusteko».

Plataformak berretsi du proiektua «oso kaltegarria» dela, milaka auto gehiago erre-



Apirilaren 25ean ehunka herritar atera ziren kalera proiektuaren aurka. HODEI TORRES

500 milioi eurotik gora kostatuko duen proiektu honek «gastu publiko ikaragarria» suposatzen duela salatu du plataformak, eta diru hori osasungintza, zaintza edo garraio publikoan inbertitu beharko litzatekeela aldarrikatu dute.

pidean jarriko dituelako, sortuko den «dei efektua» dela-eta, eta horrek kutsadura eta berotegi-efektuko gasak areagotuko dituela.

Bestalde, inguruko ikastetxeetan (Artaza-Romo institutua, Betiko Ikastola eta Romo eta Artaza eskolak) eragingo dituen albo-kalteak kezkarriak direla adierazi dute. Gogorazi dutenez, Hezkuntza Sailak onartu du Artaza-Romo institutua hustu behar izatea aukera bat dela obren eraginagatik. Halaber, Artatza parkean hamarnaka zuhaitz ebakiko direla eta Galindo erreka ekosistema, zehazki babestutako arrain hiruarantza, arriskuan jarriko dela salatu dute. ◀

Bazatoz?

BETIKO IKASTOLA

IKASTOLAK

betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84
LEIOA

Berango Etxebizitza

Alokairurako etxebizitzatan izena emateko epea zabalik

Berangoko Udalak alokairurako diren 11 etxebizitza merkaturatuko dituela iragarri du. Zehaztu dutenez, deialdia daborduko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten apirilaren 30ean, eta ordutik interesdunek 20 eguneko epea izango dute prozesuan izena emateko.

Etxebizitzak Arana eremuan kokatuta daude, eta obrak epe laburrean bukatuko dituzte; aurreikuspenen arabera, uztaierako amaituko dira eta orduan egingo da esleipena, zozketa bidez.

Sustapenak logela bateko eta biko etxebizitzak biltzen ditu, guztiak terrazadunak, eta garajea zein trastelekua bezalako eranskinak dituzte. Halaber, eraikinek energia-eraginkortasuneko sistemak izango dituzte; besteak beste geotermia, eguzki-plakak eta lurzoruko berokuntza.

Etxebizitza horiek eskuratzeko, eskatzaileek hainbat baldintza bete beharko dituzte: ezin izango dute beste etxebizitarik izan, eta urteko diru-sarrerak 15.000 eta 50.000 euro artekoak izan beharko dituzte; gainera, fidantza, gordailu gehigarria eta abala aurkeztu beharko dituzte. Alokairuen prezioak 330 eta 920 euro bitartekoak izango dira, komunitate-gastuak aparte. Lehenetsuna izango dute Berangon erroldatutako pertsonak (azken sei urteetan gutxienez hiru urtez), eta etxebizitzak hutsik geratuz gero, aukera zabalduko da udalerrian lan egiten dutenetara edo Uribe Kostako biztanleetara.

Eskaerak Nera Homes enpresaren bidez aurkeztu ahal izango dira, modu telematikoan zein aurrez aurre. ◀

Erandio Airearen kalitatea

Udalak dio airearen kalitatea «araudiarekin bat» datorrela

Erandioko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Osasun Publikoko arduradunek egindako bileran ondorio nagusi argia atera da: herriko airearen kalitatea osasuna babesteko ezarritako mugen barruan dago, eta indarrean dagoen Europako zein estatuko araudia betetzen du. Gainera, datuek erakusten dute etorkizuneko (2030eko) Europako muga zorrotzagoak ere beteko lirakeela.

Bilera horren helburua airearen kalitateari buruzko datu ofizialak aztertzea eta haien interpretazio egokia argitzea izan da, osasun publikoagaz duten lotura azpimarratuz. Udalak bereziki nabarmendu

du informazio fidagarri eta kontrastatua eskaintzearen garrantzia.

Bestalde, CSICeko ikerketa baten inguruan, Jaurlaritzak adierazi du baliagarria izan daitekeela ikuspegi orokorretarako, baina ez dela egokia ez teknikoki ez juridikoki airearen kalitatea ebaluatzeko; horretarako sare ofizial akreditatuak baino ez dira balizkoak.

Azkenik, Udalak berretsi du ingurumen-zaintza hobetzen jarraitzeko eta herritarrak informatzeko konpromisoa, eta aitortu du ikerketa independenteek ezagutza zabalitzen laguntzen dutela, betiere zorrotzasun teknikoa oinarri hartuta. ◀



Erandiogoikoko bizilagunek Befesa lantegiak igortzen duen kutsadura salatu dute.



GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

AINGARA

BORDATU ETA KANDELAZ ZURE GUSTORA...



944 038 953 · Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

Facebook Instagram

Urduliz Burdin Hesia

1937ko Burdin Hesia ezagutzeko ibilaldi gidatua egingo dute

Udalak eta hainbat erakundek elkarlanean, Santa Marina inguruan kokatutako Burdin Hesiaren aztarnak bisitatzeko ibilaldi gidatua antolatu dute.



Ibilaldia domeka goizean egingo da, Andra Mari elizatik abiatuta. HODEI TORRES

Urdulizek bere memoria historikoa gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du maiatzaren 17an. 1937ko gertaerak gogora ekartzeko helburuagaz, ekimenak parte-hartzaileei aukera emango die Gerra Zibilean Bilbo defendatzeko eraikitako defentsasistemen zati bat ezagutzeko.

Burdin Hesia funtsezko azpiegitura izan zen garaiko testuinguru historikoan, eta Urdulizko Santa Marina eremuan oraindik ikus daitezkeen arrastoek garai hartako

errealitatea ulertzen laguntzen dute.

Ibilaldia domeka goizean egingo da, 09:30etik 13:00etara, eta Andra Mari elizan izango du abiapuntua. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, parte hartzeko izena eman behar da aldezturik, eta plazak mugatuak dira. Interesa dutenek 946 762 061 telefono zenbakira deituta egin dezakete inskripzioa.

Gainera, parte-hartzaileek oinetako egokiak eramatea gomendatu dute, ibilbidea natur-gunean barrena egingo baita. ◀

Urduliz Jai Herrikoia

Urdulizko Jai Herrikoia maiatzaren 8an eta 9an itzuliko da

Aurten ere, Jai Herrikoia ospatuko da Urdulizen maiatzaren 8an eta 9an, Antsoñekoa plazan. Antolatzaileek adierazi dutenez, karpa jarriko dute, beraz, eguraldiak ez du aitzakiarik izango festaz gozatzeko.

Egitaraua barikuan hasiko da, 19:00etan, kontzertu sorta batez. Eztanda Jaialdiaren baitan, «kontzertu sorpresa» batek emango dio hasiera gauari, eta ondoren igoko dira oholtzara The Soul Train Band eta Unholy Covers taldeak, musika giroa gauerdira arte luzatuz.

Zapatuan, berriz, 13:00etan baffle bira egingo dute, eta 15:00etan bazkari herrikoia izango da; paella izango da plater nagusia, aukera begetarianoagaz. Arrastian, 16:30ean, jarduera desberdinak antolatuko dituzte, eta gauetan berriz musika izango da protagonista: 19:30etik aurrera, Trombolisis, Lucrecias eta Flow & Fayah taldeek joko dute.

Antolakuntzak ohartarazi du parte-hartzaileek ez dutela etxetik mahairik edo tresnarik eraman behar: «Jaiak dena jartzen du». ◀

Bazkari Herrikoia

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bertan bazkaldu gura dutenek txartela gainean izan beharko dute.



Ikusi ezazu egitarau osoa www.hiruka.eus webgunean edo ondoko QR kodigoa eskaneatuta.

RPS 65/17

ARANTZA ETXEBARRIA
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

hiruka

JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaituzte gugaz harremanetan:
688 811 368 • publi@hiruka.eus

Sopela ETIKASI saria**Ander Deunako ikasleek ETIKASI 2026 lehiaketa irabazi dute**

Batxilergoko 1. mailako ikasleek ETIKASI 2026 lehiaketako lehenengo saria eskuratu dute beraiek sortutako *Eskutitza* izeneko abesti eta bideoklipari esker. Horretan, ikasleek giza eskubideen zapalkuntza historikoak —faxismoa, nazismoa eta Euskal Herriko diktadura, besteak beste— gogora ekarri eta gaur egungo arrisku digitalakaz lotu dituzte. Kantua horren bitartez, kontzientzia kritikoa piztu gura izan dute, eta iraganeke gertaera beltzak oroitzeaz gain, sare sozialetan gazteek jasotzen dituzten mezu totalitario eta diskriminatzaileen arriskua identifikatu eta salatu dute. Hala, proiektuaren helburu nagusia gaur egungo gazteek sarean jasotzen dituzten pentsamendu diskriminatzaileen aurrean «antigorputzak» sortzea izan da, balio etikotan oinarritutako hezkuntza baten bidez.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) kudeatua, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz antoaltutako lehiaketa honen sari nagusia, Poloniarako bidaia, esperientzia hezitzaile murgiltzailea izango da; bertan, Ander Deunako ikasleek zuzenean ezagutuko dute Auschwitz, giza eskubideen urraketa larrienen inguruan hausnartzeko eta etorkizunerako konpromisoak indartzeko. ◀



Poloniarara joango diren ikasleak. © ANDER DEUNA

Sopela Iberren handitzea**AVS/SAAk jarritako errekurtsuari ezezkoa eman dio Udalak**

Sopela BHI institutua handitzeko proiektuak aurrera jarrai dezan, Udalak AVS/SAA alderdiak urbanizazio-lanei jarritako errekurtsuari ezezkoa eman dio.

Erabaki honegaz, Sopelaren-tzako «estrategikoa» den hezkuntza-azpiegitura hau bideratzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta Elkarrekin Sopela eta Zipiriñeko eta Iberreko ikasleen gurasoen elkarteetako ordezkariak babestu dute ekimena. Azaldu dutenez, daborduko, Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidali dio lursailak behin-behinean urbanizatzeko aurreproiektua, onespena eman eta lanakaz hasi daitezzen.

Aitzitik, AVS/SAAk urbanizazio-proiektuaren aurka egiteko bi argudio nagusi zituen: batetik, hirigintza-araudiak lursail guztiak hezkuntza-erabilerarako direnik aurreikusten ez zuela; eta, bestetik, Iberrota kalea lekualdatzeko lurren kalifikazioak horrelakorik baimentzen ez zuela.

Sopelako Udalak, ordea, erantzun du Abaroko Plan Partzialak berak aurreikusten duela lursail hori hezkuntzarako erabiltzea eta, horretarako, Iberrota kalearen moldaketa beharrezkoa dela.

Proiektua herriarentzat estrategikotzat jotzen dute udal-taldeek (EH Bildu, EAJ, PSE-EE eta Elkarrekin Sopela) eta guraso elkarteek: «Berriro azpimarratzen dugu premiazkoa dela egungo eta etorkizuneko ikasleen beharrei erantzungo dieten hezkuntza-azpiegiturak izatea. Iberre institutuaren handitzearekin aurrera egitea funtsezkoa da, premiazkoa baita egungo eta etorkizuneko ikasleen beharrei erantzungo dieten hezkuntza-azpiegiturak izatea».

PROZESU JUDIZIALA. AVS/SAEk tokiko alderdi politikoak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri zion 2023an Abaroko Plan Partzialari, baina EAeko Justizia Auzitegiak arrazoia eman ziola Sopelako Udalarari 2025eko irailean. Hala ere, epai horren aurka, AVS/SAAk kasazio-errekurtsioa aurkeztu zuen iazko abenduaren hasieran, eta EAeko Auzitegi Nagusiak errekurtsio hori aztertzeke zain dago, Sopelako Udalak berak formalki aurka egin ondoren. ◀

Udaberriko Jala

Ekainak 6
larunbata,
10:00etatik aurrera

ander deuna
IKASTOLA

2. BATXILERGOKO FAMILIEN AGURRA,
NIKOLA TELLERIARI OMENALDIA,
KIROLA, MUSIKA, BAZKARIA...

...eta askoz gehiago!

Plentzia Gobernu Plana

Udalak orain arte egindako lanen berri eman die herritarrei

Plentziako Udalak 2026ko Gobernu Planaren betetze-mailari buruzko aldizkari berezia argitaratu du, legegaldia amaitzeko urtebete faltan, herritarrei egindako lanaren kontuen berri emateko. Udaleko arduradunek azpimarratu dutenez, ekimen honek gardentasuna eta erantzukizun politikoa ditu ardatz; dokumentuaren xehetasunak maia-

tzaren 6an aurkeztuko dituzte Goñi Portalean.

Txostenak Plentziako esparru asko hartzen ditu, hala nola Arpillao, merkataritza, kirol instalazioak, irisgarritasuna, komunikazioa, hondakinen kudeaketa eta memoria historikoa. Horien inguruan proiektuak eginda, bidean, baztertuta edo Udalaren eskumetik kanpo dauden zehazten da. ◀



Udazkenean hasiko dituzte lanak

Plentziako Txipio auzoan, biribilgune eta aparkaleku berria eraikiko dituzte metro-geltokiaren ondoan. 4 milioi euro inguruko inbertsioa izango duen proiektuak udalerriko sarrera horretako bide-segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetuko ditu Obrak irailean, hasiko dituzte eta 12 hilabeteko epea izango dute. ARGAZKIA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Gorliz TAO berria

TAO maiatzaren 15etik urriaren 15era arte luzatuko dute Gorlizen

Hemendik aurrera, TAO maiatzaren 15ean hasiko da eta urriaren 15era arte luzatuko da; hau da, orain arte baino hilabete gehiago egongo da indarrean. Maiatzaren 15etik ekainaren 15era, eta irailaren 15etik urriaren 15era, aste-akabuetan eta jaiegunetan bakarrik ordaindu beharko da. Udako garaian, ordea, egunero aplikatuko da, 08:00etatik 22:00etara, eguerdian etenaldiagaz. Gainera, TAO bonua dutenek doan eta denbora-mugarik gabe apartatu ahal izango dute gune arrosa berrietan. presio handiena duten kaleetan aparkalekua erraztuz. ◀

Gorliz Kirol-gune berriak

Kirol anitzeko kantxa bat eta kalistenia-gune bat sortu dituzte

Gorlizko Udalak 101.000 eurotik gorako inbertsioa egingo du udalerrian kirol-instalazio berriak sortzeko, herritarren artean sedentarismoari aurre egiteko asmoz. Proiektuaren barruan, Argiñena kalean kirol anitzeko kantxa bat eraikiko dute, saskibaloian eta pilotan aritzeko, soropil artifizialarekin. Horrez gain, berdegune bat eraldatuko dute gazteentzako kalistenia-gunea eta adinekoentzako aparatu biosungarriak (bizikletak, eliptikoa eta abar) uztertuko dituen gunea sortzeko. Horien lanak uda baino lehen amaitzea aurreikusten dute. ◀

ERDI GUNEAN ZU
Eskatu bisita pertsonalizatua

SAN NIKOLAS
IKASTOLA
IKASTOLAK

Ezagutu gure eraikin berria
Etarbizunerantz!

Lemoiz Proiektu estrategikoa

Lenguaduak hazi gura dituzte zentral nuklearrean

Lehendakariak Lemoizko zentral nuklear zaharraren etorkizunerako proiektu estrategikoa aurkeztu du: 170 milioi euroko akuikultura eta ikerketa zentroa.

Imanol Pradales lehendakariak eta Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak zentral zaharrean bertan egindako aurkezpenean aurreratu zuten, egitasmoak 200 lanpostu kualifikatu sortzea eta, 2030 urtetik aurrera, 3.000 tona lenguadu (Solea soela) merkaturatzea du helburu. Horretarako, Basordas Proiektuagaz izendatu duten egitasmo honek 170 milioi euro jasoko ditu inbertsio publiko-pribatutik.

Hala ere, proiektua faseka garatuko dela iragarri zuten: lehenik, 2027an lan nagusiak hasiko lirateke, azpiegitura eraikitzeko. 2029an, lehen lenguaduak hazten hasi gura dute, eta, azkenik, 2030etik aurrera, «Made in Euskadi» zigilua duten arrainak merkaturatzen hasi gura dute.

Sea Eight enpresa esleipendunak gidatuko duen egitasmo honek EAEn elikagaien sekto-



Lehendakariak eta sailburuak proiektua aurkeztu zuten Lemoizen bertan. HODEI TORRES

2030

urterako akuikultura-zentroa prest eta arrainak ekoizten egongo dela iragarri zuten.

rea indartzeko xedea duela azpimarratu zuten, akuikultura eredia bultzatuz, ozeanoak agortu gabe proteina eskaintzeko modu eficientea dela iritzita. Ildo horretan, AZTI zentro teknologikoak funtsezko papera jokatuko du horretan, arrainen hazkuntzan, uraren birzirkulazio sisteman (RAS), nutrizioan eta trazabilitatean aditua den aldetik. ◀

Lemoiz Zentral nuklearraren etorkizuna eztabaidagai

Zentral nuklearraren etorkizuna herritarren artean erabakitzekeo nahia

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eskaera formala egin du Eusko Legebiltzarreko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Batzordean parte hartzeko. Eskaera horren helburua Lemoizko zentral nuklear zaharraren etorkizunaz eztabaida kolektiboa irekitzea da.

Azaldutenez, azken hilabeteotan, Lemoizko zentralaren inguruan hainbat albiste eta ekimen plazaratu dira. Gai horiek industria, ingurumen, ondare, arte, kultura eta memoriagaz lotura estua dute.

Otsailean, Uribe Kostako eta Mungialdeko hainbat alkatek Lemoizko zentral nuklear zaharraren etorkizuna definitzeko entzute-eta parte-hartze prozesua abiatzeko eskatu zuten.

Testuinguru horretan, Mankomunitateak inoiz martxan jarri ez zen azpiegitura horri eta bere inguruari erantzun integrala emateko beharra aldarrikatu du. Horretarako, «aktibazio komunitarioa eta gobernantza kolaboratiboa» artikulatuko dituen entzuteko eta parte hartzeko prozesu bat bultzatzea proposatu dute. Diotenez, Proposamen honen oinarria gardentasunean eta partaidetzan datza: «Herritarrek zentralaren eta haren ingurunearen etorkizunari buruz iritzia emateko eta eztabaidan parte hartzeko aukera izan behar dute». ◀

HIRUKA Egunean Behin joko

Egunean Behin jokoaren Tokikom Liga abian da

Egunean Behin joko ezagunaren 21. denboraldia hasi berri da, eta aurten Tokikom Liga berritzailea dakar. HIRUKA horren parte ere izango da, eta lehiaketak iraungo dituen 10 asteetan, parte-hartzaileentzako Karpinerako sarrerak eta boligrafo bat izango ditu zozkatzeko astero.

Maiatzaren 11tik uztailaren 12ra bitartean, tokiko 10 hedabidek eta beren eskualdeetako erabiltzaileek elkarren aurka lehiatuko dira. Oraingo honetan, lehia ez da banakakoa izango, taldekoa baizik, eskualde bakoitzeko jokalarien batez besteko puntuazioa hartuko baita kontuan.

Hala, Tokikom Ligan parte hartzeko, Uribe Kostako erabiltzaileek ezinbestekoa dute euren profila

osatzea (aurpegi-argazkia, izen-deiturak, adina eta herria zehaztuta) eta HIRUKA taldea hautatzea. Baldintza horiek betetzen dituztenek zozketetan parte hartu ahal izango dute. Hain zuzen, HIRUKAk sari eskusiboak eskainiko ditu eskualdeko parte-hartzaileentzat: astean behin, Karpinerako umeentzako 2 sarrera eta boligrafo berezi bat zozkatuko ditugu.

Ligan parte hartuko duten 10 taldeen artean (HIRUKA, GUKA, Anboto, Goiena, Aiurri, Barrena, Arabako Alea, GiTB, 28 Kanala eta Guaixe) sailkapen estua espero da, eta astero emaitza onenak dituen eskualdea jakinaraziko dutela ere iragarri dute. Informazio gehiago eta izen-ematea Egunean Behin jolasaren webgunean aurkitu daitezke. ◀

Barrika Pirata Trail

Barrikako lasterketa herrikoia erabiltzaileentzako edizioa egingo dute

Maiatzaren 10ean laugarren edizioa beteko duen Barrika Pirata Trail kirol-hitzordua dena prest dute. Lasterketa eta martxa zirkular honek Barrikako labarrak eta paisaia ikusgarriak zeharkatuko ditu, udalerraren kirol eta kultur jardura indartuz.

Egun horretan udalerrian aurreikusten duten jendetza dela eta, Barrikako Udalak garraio publikoa erabiltzeko deia egin die herritar eta parte-hartzaileei, Plentziako metro-geltokiaren eta Barrikaren arteko autobus-anezka zerbitzua baliatuz.

Lasterketa 09:30ean hasiko da, martxa, berriaz, 09:40an, eta 13.220 metroko ibilbide zirkularra izango du guztira. Parte-hartzaileak Barrikako udaletxetik abiatu, eta Muriola, Barrika eta Meñakozeko hondartzak zeharkatuko dituzte, Txipio ingurura heldu eta Butroeko itsasadarra inguratuta udaletxe plazara bueltatuko dira. ◀

Kuxkuxean hasteko prest?

LEHEN HEZKUNTZA BERRIA
LEHEN ZIKLOA



IBAIZABAL
www.ibaizabal.com




GETXOPHOTO



20 edizioeren ostean, Getxophoto nazioarteko irudi-jaialdiak bere burua reseteatuko du, berrabiaraziko du. Aurten, inor axolagabe utziko ez duen programa osatu dute, mundu osoko 23 argazkilariren lana eta askotariko ekintzak izango dituen. Hala, maiatzaren 28tik ekainaren 21era irudiagaz esperimintatzeko erakusleihoa izango da Getxo. Orrialdeotara aurtengo artisten lanen lagin bat dakarkizuegu.

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: GETXOPHOTO









Erik Harley Artista eta dibulgatzailea

«Zer eraiki behar den erabakitzeke logika ez da behar adina aldatu»

Artearen eta ikerketaren munduko ikuspegiagaz Espainian eraikitzeke moduaren inguruko desmitifikazioa eta kritika zorrotza egiten du Erik Harley (Bartzelona, 1991) dibulgatzaileak. Horretarako, *pormishuevismo* kontzeptua sortu du: behar errealik, bideragarritasun azterketarik eta erantzukizunik gabe egiten diren obra publikoak. Gurean ere horrelakorik izango ote dugu?

TESTUAK: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIAK: ANNA MELÉNDEZ ETA DANIEL GARCIA SALA ►

Erik, ikerketa akademikotik eta artetik hiri-dibulgazioko erreferente izatera pasa zara, oso hizkera propioagaz. Zein momentu zehatzetan konturatu zinen Espainiako arkitekturaren azterketak «glamour» gutxiago eta «ikerketa-bulego» askoz gehiago behar zuela? Ez dakit arkitekturaren azterketak glamour gutxiago behar duen; «brilli-brilli» apur batek ez dio inori kalterik egiten. Zintzotasun gehiago eta ikuspegi sozialetik egindako dibulgazio gehiago egitea da benetan behar dena, hau da, hiri bat zer den, norentzat eraikitzen den eta nork erabakitzen duen azaltzen duten aurreko mendeko kontakizunak zalantzan jartzeko gaitasuna duen ikuspuntu batetik aztertu behar da. Abiarazi nindue-na ez zen argi-une bat izan, besterenganako lotsaren pilaketa baizik. Eta ez duzu urrutira joan behar hori aurkitzeko. Getxoko bizi-lagunek ez naute behar konturatzeke zerbait gaizki doala institutu baten patioa obra zibil bateko orube bihur daitekeenean, edo jauregitxo historiko bat hiru zinegotziren artean desagertzen denean, eta benetako ondoriorik ez dagoenean. Hori badakite. *Pormishuevismo* kontzeptuak ekar dezakeen gauza bakarra hiztegia da: eredia izendatzea, mekanika identifikatzea eta ulertzea ez direla kasu isolatuak, herrialde honetan hirigintza-erabakiak nola hartzen direnaren sintomak baizik. Beti norabide berean. Beti emaitza berarekin. Eta beti inoren erantzukizunik gabe.


Pormishuevismo

«Diru publikoarekin zerbait eraiki edo proiektatzeko joera da, hori egiteak justifikatzen duen behar errealik gabe, bideragarritasun analisi seriorik gabe, eta, batez ere, huts egiten duenean, inork erantzuko ez duen ziurtasunarekin. Justifikazioa lausoa izaten da normalean: «Udalerrria mapan jartzea», «irudia modernizatzea», «inbertsioa erakartzea». Praktikan, inaugurazioko titularra nahi duen norbait dagoela eta gainerakoa hurrengo berrogei urteetan guk jasan beharko dugula esan nahi duten esaldiak dira»

Gaur egungo etxebizitza krisiaren aurrean, neurri batean uste duzu «ladrillazoaren» historiak etxebizitza eskubide gisa ikusteko ezintasuna eragin digula, errentagarritasun handiko aktibo finantzario gisa ikustera behartuz? Galderak arazoa pertzepzioarena dela suposatzen du. Baina kontua ez da horrela. Etxebizitza 1978tik aitortutako eskubidea izan da herrialde honetan. Hala ere, dena adierazten duen xehetasun txiki bat dauka: ez dago Konstituzioko oinarritzeko eskubideen kapituluaren, gizarte eta ekonomia politikaren printzipio gidarrietan baizik. Asmo onen atalean, hain zuzen ere. Konstituzioko «desioen zerrenda» bat, besterik ez. Denok dakigu etxebizitzarako sarbidearen krisia arazo oso larria dela. Politikariek ere badakite, eta kanpaina bakoitzean konbikzio miresgarritz errepikatzen dute. Arazoa da kontrako sistema eraiki dutela. Esparru fiskalak metatzen duten jabeak saritzen ditu. Inbertsio funtsak haientzat ezin hobea den merkatu batean jarduten dute. Bankuek lurra garesti mantentzeko pizgarri estrukturalak dituzte. Udalek hirigintza diru-sarrerara iturri nagusi gisa erabiltzen dute. Ez da konspirazio bat, espekulazioa sistemako aktore bakoitzarentzat aukerarik errentagarriena izatea eragiten duen arkitektura baizik. «Ladrillazoak» ez digu etxebizitza eskubide gisa ikustea galarazi. Eskubide hori erabili ezin izateko sistema bat eraiki dugu.

Espekulazioaren mapa egiten ari zara Espainian zehar, zein litzateke zure ustez Estatu «pelotazoaren» monumenturik nabarmenena? Tira, Espainian zehar ibili gintezke horiek zerrendatzen, kakofonia hain da erabatekoa non bakoitzak bere gogokoena hautatu dezakeen. Baina ez da urrutira joan behar *pormishuevismoko* monumentuak aurkitzeko. Hemen bertan dugu azken 30 urteetako Espainiako hirigintzaren kontakizunik eragingarriena: Bilboko Guggenheim museoa. Kontuz: funtzionatu zuen. Hain ondo funtzionatu zuen, non ondorengo edozein zentzugabekeria justifikatzeko aitzakia unibertsal bihurtu zen. Hiri bakoitzak bere Guggenheim-a nahi zuen, alkate bakoitzak bere izar-arkitektoa nahi zuen, aldundi bakoitzak bere eraldaketa-efektua nahi zuen. Inork azaldu ez zuena da hura ez zela pinakoteka bat eraikitzea bakarrik izan. Plan integrala izan zen: itsasadarraren birsorkuntza, mugikortasun sare berria, hiriko azpiegitura. Eta testuinguru oso zehatz batean gertatu zen, industria-birmoldaketa basati batetik zetorren eta berrasmatzeko benetako beharra zuen hiri batean eman zen. Hori ez da eredu errepikagarria, kasu bat da. Guggenheim kasua. Formula esportagarri batekin nahastea Espainiako hirigintzaren historiako gaizki-ulertu kolektiborik handiena izan zen. Azpigaratutako pabiloiekin, programarik gabeko kultur etxeekin eta inork erabiltzen ez dituen pasealekuekin ordaintzen jarraitzen dugu.

Hiriak milioika gastatzen ikusi ditugu, gaur egun azpierzarritako edo hondakinetan dauden izar-arkitektoen eraikinetan. Egile-arkitektura Espainiako diru-xahutze publikoaren «Troiaiko zaldia» izan al da? Hori da. Gainera, aberats berriaren izpiritu kaxkar samarra ere izan du. Herri-mailan bikaintasuna bilatu beharrean, Espainiako arkitekturaren berrikuntza historikoaren tradizio tekniko bikainean arakatu beharrean, bi hamarkadatan, arkitekto izarra argudio ezin hobea izan zen ezer justifikatu, pentsatu edo azaldu beharrik ez izateko. Apoa nahikoa ezaguna bazen, urmaelak eztabaida ez ziren. Inor ez zen osoko bilkura batean eskua altxatzen ausartuko galdetzeko zer gertatuko zen «mamotreto» horrekin hamar urte barru, norik mantenduko zuen, proposatzen zen horretarako benetako eskaerarik bazegoen edo babesten zuen ingurumen txostenik bazegoen. Izena zen guztiaren erantzuna. Izen horrek ordainsariak kobratzen zituen eta joan egiten zen, eta erakundeari hipoteka, programa hutsala eta proiektua aldatu gabe diseinuzko argizuloko itoginak konpontzeko gai zen inor ez zen geratzen.



Erik Harleyk sare sozialetan abiatu zuen bere dibulgazionala. Espainiako hainbat hiritan ruta artistikoak ere egin zituen, eta 2021etik hainbat telebista- eta irrati-saiotan ere aritu da. Bere ibilbidean hainbat liburu ere idatzi ditu, hala nola *De Pelotazo en Pelotazo. Salseo, despilfarro y pormishuevismo en el fútbol español* (2021) eta *Pormishuevismo: Rutas por la España del ladrillo* (2023).

«Azken 30 urteetako Espainiako hirigintzaren kontakizunik eragingarriena: Bilboko Guggenheim museoa. Funtzionatu zuen. Hain ondo funtzionatu zuen, non ondorengo edozein zentzugabekeria justifikatzeko aitzakia unibertsal bihurtu zen. Hiri bakoitzak bere Guggenheim-a nahi zuen, alkate bakoitzak bere izar-arkitektoa nahi zuen. Inork azaldu ez zuena da hura ez zela pinakoteka bat eraikitzea bakarrik izan»

Gurean, 'Irurak Bat' kasuak oihartzun handia izan du, besteak beste, Getxoko Udaleko hiru zinegotzi egon baitira horretan nahastuta. Ez nau harritzen kasuak, harritzen naue-na da oraindik horrelakoak ikustea harritzen gaituela. Gidoia beti berdina da: balio handiko eremuko eraikin berezia, gutxi gorabeherakoa izan daitekeen utzikeria estrategikoa, kultura itxura duen, baina benetan operazio inmobiliario den «berreskurapen» proiektua, eta, zehaztasun handiz ezer gogoratzen ez duten zinegotziak. Dakidanez, Abrako inguruan espekulazioaren presioa basatia da. Horrelako kasuetan ondarea kontserbatzeak borondate politiko aktiboa eta iraunkorra eskatzen du, ez inork berrikusten ez duen katalogo bateko izenpeko babesa. Baina, gainera, horrelako hondatze-prozesu batean kargu hautetsiak tartean daudenean, arazoa ez da hirigintza soilik. Izan gaitezen zintzoak: ondareak balio du administrazioak erabakitzen duena, eta balio espekulatibo handiko eremuetan, erabaki hori oso gutxitan hartzen du irabazteko ezer ez duen batek.

Eskualdean polemika handia sortu duen beste proiektu handia itsasadarraren azpitiko tunelarena da. Interes orokorraren bizkar egindako azpiegitura baten aurrean gaude? Proiektu bakar batean hainbat klasiko biltzen dituen kasua da. Lehenengoa: mugikortasun arazo baten aurrean, ingeniaritza zibileko irtenbidea proposatu da erantzun gisa, aukera posible bakarra dela modu sinesgarrian frogatu gabe. Bakarra. Bigarrena: itsasadarra benetako hauskortasuna duen eta pilatutako kalteen historia larria duen ekosistema babestua da. Tramite tekniko gisa bezala tratatzeak asko esaten du erabakiak hartzerakoan lurraldea nola hierarkizatzen den. Eta hirugarrena, institutuarena, honaino iritsita ia txiste bat dirudi. Zure mugikortasun proiektua aurrera ateratzeko hezkuntza zentro baten patioan esku hartu behar baduzu, prozesuaren punturen batean norbaitek gelditu, planoak begiratu, eta ozen galdetu behar zuen ea beste modurik ez ote zegoen. Itxuraz hori gertatu izana eta entzun ez izana da gehien interesatzen zaidan parte. Hor dagoelako benetako dinamika *pormishuevista*: ez da proiektua bera, baizik eta horra iristeko prozesua. Gizarte garatu batean, hezkuntzarako gune bat ez litzateke inoiz kalte kolateral negoziagarri gisa tratatu behar. Gainera, egitasmoak zerikusi handiagoa badu funts erabilgarriak iraungi baino lehen erabiltzearekin, arazo oso konplexu bati ziurtasunez konponbide bat ematearekin baino, orduan koadro osoa dugu hor.



Harley hiri-ikasketetan aditua eta Arte Ederretan graduatua da. Bost liburu idatzi ditu eta Gaur-gaurkoz Oficina Periferia gidatzen du. DANIEL GARCIA SALA

Zure ustez, 2030 Agendak eta larrialdi klimatikoak gaur egun daborduko onartu ezin ditugun XX. mendeko azpiegitura-proiektu handiei eusteko narratiba sortu dute? 2030 Agenda, proiektu gehiegitan, gauza berberak egiteko hiztegi berria izan da. «Dinamizazio ekonomikoa» hitzak «erresilientzia» hitzagarrik aldatzen duzu, «jasangarri» berba gehitzen diozu tunelaren izenari, eta autobideak edo portuaren hedapenak aurrera jarraitzen dute. Ez dut esaten azpiegiturak eraiki behar ez direnik. Ingeniaritza zibila izan da gure garaiko lorpen handien oinarria. Esaten dudana da zer eraiki erabakitzeko logika ez dela nahikoa aldatu. XXI. mendean, derrigorrezkoa izan beharko litzateke galdetzea ea ingurumenean inpaktua izango duen edozein obra handiren aurretik, irtenbide bideragarri bakarra ote den. Ez proiektuaren memorian asmoen adierazpen gisa, baizik eta erantzuna negatiboa bada obra bat geldiarazi dezakeen irizpide erreala gisa.

Zer tresna emango zenioke herritar bati, bere institutuko patioan edo ingurune natural batean hirigintza proiektu berri baten arriskuan dagoela ikusten badu? Nola egiten zaio aurre pormishuevismoari oinarri-

Artaza-Romo institutua

«Gizarte garatu batean, espazio hezitzailea ez litzateke inoiz kalte kolateral negoziagarri gisa tratatu behar»

‘Trurak Bat’ eta ondarea

«Horrelako kasuetan ondarea kontserbatzeak borondate politiko aktiboa eta iraunkorra eskatzen du, ez inork berrikusten ez duen katalogo bateko izenpeko babesa»

tik? Galdera egiten didazun momentu honetan Getxo eta Leioako bizilagunak hain zuzen ere egin beharrekoa egiten ari dira, itsasadar azpiko tunelaren aurkako plataformarekin. Beraz, aholku bat baino, aitorpen bat da: antolatzea, dokumentatzea eta denboran koherenteak izatea da zuzena, zaila eta nekagarria den arren. Hiru gauza zehatz: Bata: proiektuaren dokumentazio publikora sartzea, existitzen delako eta irakurtzea zuen eskubidea delako. Inpaktu azterketak, memoria teknikoak, hautabideen txostenak. Lan aspergarria da, baina ezinbestekoa. Argudio sendoak hortik bakarrik ateratzen dira. Bi: dagoeneko konbentzitura dauden zirkulutik haratago koalizioa eraikitzea. Irakasleen klaustroak, ikasleen guraso elkarteak, talde ekologistak, arkitektura eta ingeniariak elkargo profesionalak, unibertsitateko ikerketa taldeak. Autoritate mota desberdina ematen duen aliatu bakoitzak zailagoa egiten du proiektua benetako eztabaidarik gabe onartzea. Eta hirur, eta hau da garrantzitsua: dena politikoki dokumentatzea. Norik bozkatu zuen zer, noiz, zer argudiorerkin eta zein baldintzatan. Gogoratu publikoki hauteskundeak iristen direnean. Memoria da *pormishuevista* direnen aurkako aliatu onena. Ez dezatela gurea lapurtu. ◀

Maiatza

Barrika

Maiatzak 10, domeka

IV. Barrika Pirata Trail

09:30 | Ander Deuna Aretoan

Informazio gehiago eta izen ematea:
www.rockthesport.com - www.uno.es.

Maiatzak 29, barikua

Ludoteka: San Juan

18:00 | Ander Deuna aretoan

Izen-ematea telefonoz edo emailuz:
946 775 163 eta liburutegia@barrika.eus.

Maiatzak 30, zapatua

Berbaldia: Artea. Begiratu eta ikusi

19:00 | Ander Deuna aretoan

Berango

Maiatzaren 15etik 17ra

Erdi Aroko azoka

Maiatzaren 9tik 30era

Antzerki Amateurraren XIII. Jaialdia

19:00 | Berangoeta antzokian

Zapaturo, antzerki-obra bat eskainiko dute antzerkigile afizionatuek.

Erandio

Maiatzak 10, domeka

Kanpomartxo

Asuan

Dantzaldiak, erronomia, bertso-saioa, herri-bazkaria... Berbotsek antolatutako egun handia.

Maiatzaren 21etik 31ra

San Fernando jaiak

Astrabuduan

Gaztela eta Leon zentroak hainbat jarduera antolatuko ditu: musika, hitzaldiak, txangoak...

Maiatza 23, zapatua

Apurtuarteren mendeurrena

12:00 | Arteaga futbol zelaian

Futbol-taldearen mendeurrena ospatzeko egun osoko egitaraua prestatu dute.

Getxo

Maiatzaren 2tik uztailaren 18ra

Getxo Eszena kalean

Xake plazan

Zapaturo, maiatzaren 2tik aurrera, adin guztietako herritarrentzako antzerki, dantza, zirkua eta askotariko generoez gozatzeko aukera izango da Areetako Xake plazako anfiteatroan.

Maiatzak 10, domeka

Go!azen 12.0

16:30 + 19:00 | Muxikebarrin

Basakabiko gazteak Getxora bueltatuko dira ikuskizun berriaren emanaldi bikoitzagaz.

Maiatzak 13, eguaztena

Liburuaren aurkezpena: Deidarra

19:00 | Azebarrin

Aritz Ibarraren liburu berria.

Maiatzak 15, barikua

Antzerkia: Lohi gorria

20:00 | Muxikebarrin

Bidaia intimo eta politikoa.

Maiatzaren 15etik 16ra

Serifalaris jaialdia 2026 Muxikebarrin

Nazio mailan erreferentzia den diseinu eta sormen jaialdia.

Gorliz

Maiatzak 14, eguena

Topakanta

19:30 | Gorlizko Batzokian

Euskaraz abesteko topaketa.

Maiatzak 16, zapatua

Jazz kontzertua

20:30 | Gorlizko elizan

UK Saskibaloit taldeak antolatuta.

Maiatzak 27, eguaztena

Topaketa: Joxean Agirre – Solteroen dantzalekuak

19:00 | Sertutxenan

Solasaldia liburuaren egileagaz.

Leioa

Maiatzaren 14tik 17ra

Umore Azoka

Leioako 2026ko Umore Azokak, Leioako Kale Artisten Azokak, berriro ere udalerrira hiri-agertoki bihurtuko du.

Maiatzak 23, zapatua

Sanbar Blues Fest

19:00 | San Bartolome plazan

Vasti Jacson, Maria Carbonell Blues Mood eta Stefano Barigazzi Band.

Lemoiz

Maiatzaren 8tik 10era

Artebizi

Kaleko antzerki jaialdia Armintzako portuan.

Maiatzak 24, domeka

Mendi irteera: Brinkolara

Etzandarri Mendi Taldeak antolatuta.

Maiatzaren 29tik 31ra

Andrakako Trinitate jaiak

Laster egitaraua hiruka.eus webgunean.

Plentzia

Maiatzak 13, eguaztena

Hitzaldia: Etxebizitza komunalak

19:00 | Goñi Portalen

Hizlaria: Unai Gaztelu.

Maiatzak 24, domeka

Plentziako Ibilgailu Klasikoen XVII. Erakusketa

09:30 | Ontziola plaza

Maiatzak 29, barikua

Antzerki laburra: Destiny Driver

18:30 | Goñi Portalen

XXII. mendean, *Destiny Driver* softwareak etorkizun aukerak erakusten ditu.

Sopela

Maiatzaren 16tik 24ra

Sopelako II. Natura Astea

Hainbat ekintza antolatuko dituzte.

Maiatzak 20, eguaztena

Dokumentala: Urdaibaiko sakrifizioa

18:00 | Kurtzio kultur etxean

Emanaldia eta solasaldia Guggenheim Urdaibai Stop plataformako kideakaz.

Maiatzak 29, barikua

Kultura eta kirol gala 2026

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Urduliz

Maiatzak 8 eta 9

Urdulizko jai herrikoiak

Antsonekoa plazan

Kontzertuak, herri-bazkaria...

Maiatzak 8 eta 9

Burdin Hesia ezagutzeko txango gidatua

09:30 | Andra Mari elizatik abiatuta

Aldez aurretik izena eman behar da Urdulizko Udaleko HAZn.

Maiatzak 31, domeka

Tokiko merkatarien azoka

11:00 | Marutze frontoian

Umeentzako tailerrak ere egongo dira.

UMORE AZOKA

XXVI FERIA DE
ARTISTAS CALLEJEROS
DE LEIOA

MAIATZAK 14, 15, 16, 17 MAYO 2026





Itsasadar ahaztua

Mende luzetan, Ibaizabalen itsasadarrean esku-hartze handiak egin dira bertako nabigagarritasuna hobetzeko; hala nola ubidea kanalizatu, hareatzak dragatu eta padurak idortu. Edonola ere, bokaleari lotutako ondare historiko, kultural eta naturala oso nabarmena da eta gogora ekarri beharra dago.

INÁKI LARRETXI GALLASTEGI • LUKA MELENDEZ ARTEAGA ▶

Ibaizabalen bokaleko hareatza dragatuak zein padura idortuak guztiz ezabatuak izan dira itsasadarrean Ezker- eta Eskuinaldeko iruditeria popularretik. Dena dela, horrelako hezeguneez berebiziko garrantzia izan zuten ia XX. mendera arte, eta etengabeko gatazka-iturria izan ziren ere.

Lehenik eta behin, bokalean «Portugaletoko Barra» izeneko harea-formazio luzea zegoen, ontzien joan-etorria zeharo oztopatzen zuena eta sarritan naufragioak eragiten zituena. Izan ere, itsasbeheran posiblea ei zen bokaleko hareatzetatik alderik alde oinez ibiltzea. Hori zela eta, XVIII. eta XIX. mendeetan etengabeko obrak bultzatu ziren itsasadar guztian zehar nabigagarritasuna hobetzeko; dena den, lanen arrakasta mugatua izan zen Evaristo Churruca ingeniariak 1881ean gakoarekin asmatu zuen arte. Bada, garaiko usteen arabera, Barran sedimentu gehiegi metatuz gero, Bilboko hiribilduak Aro Modernoan zehar eskuratu zuen garrantzia komertziala desagertzeko arriskua zegoen.

Mendeetan zehar, Abrako pilotu lemanek (aldirietako itsasgizon gaituak zirenak) bokalean barrena gidatu zituzten kanpotik etorritako ontziak, hareatzetan gertatutako istripuak ekiditeko asmoz. Hala ere, naufragioak gertatzen zirenean liskar handiak egoten ziren eragile ezberdinen artean, galdutako karga balioetsuak zirela eta. Adibide moduan, 1749ko neguan Nuestra Señora de la Paz ontzia Barran hondoratu zenean, inguruko herrietako lagun asko bertaratu egin ziren merkantziak eurenganatzeko asmoz. Egoeraren aurrean, Bilboko zenbait merkatarik kaltetuk salaketa aurkeztu zuten. 1805. urtean, bestetik, Santiago de Echaniz kontramaisuak eta Antonio de Basagoiti getxoztarrak Manuel de Berreteaga leioaztarrak jipoitu zuten, azkena hondoratutako ontzi baten harrapakinak jagoten ari zenean Areetako hareatzan. Bitxikeria gisa, Leioako Aketxe auzuneko sehaska-kanta batek horrela zioen:

**«Zori onean galdu da
Ereagan ontzie
aketzatarrak jantziteko
lorazko jantzie».**




1734ko Abra irudikatzen duen planoak, nasa berri batzuk eraikitzeko proiektuaren harira (Kultura Ministerioa).

Gainera, hareatzak formazio geologiko dinamiko eta konplexuak izanik, zaila izaten zen beraien gaineko jurisdikzioak zehaztea, 1717ko Getxoko eta Leioako elizateen arteko auzi batek erakusten duen moduan.

Bokaleko paisaien magnitudean pentsatzea zaila den arren, azken mende eta erdian eragindako aldaketa sakonekin ezinezkoa litzateke estuarioko sistemak osotasunean lehengoratzea. Zorionez, oraindik jatorrizko hezegunearen azalera txiki batek dirau Leioako Lamiako auzoaren parean. Xumea eta eskasa ere iruditu arren, Ibaizabalen bokalean geratzen den padura bakarra da eta hegazti ugari erabiltzen dute egunerokotasunean edota migrazioko geldiduneetan, bazkaleku eta babesleku gisa.

Mendeetan zehar, Abrako pilotu lemanek (aldirietako itsasgizon gaituak zirenak) bokalean barrena gidatu zituzten kanpotik etorritako ontziak, hareatzetan gertatutako istripuak ekiditeko asmoz.



Ibaizabal, Gobela, Udondo, Galindo, Asua eta Kadagua ibaien itsasadar elkartua konplexutasun geologikoko eta aberastasun biologikoko sistema erraldoia zen, XIX. mendean paisaian sakonki eragin zuten giza aldaketek habitata eta prozesuak sinplifikatu zituzten arte.

Gaur egun mareen eragina Abusu-La Peñan ere somatu daitekeen arren, itsasotik 15 km barnealdera, duela bi mende beraien eragina ardatz perpendikularrean ematen zen ere; hots, itsasa-

darra inguratzen zuten padura-azalera handiak egunean bitan ureztatzen ziren.

Itsasoarekiko eta bokalearekiko gertutasunaren arabera habitat ugari aurkitu zitezkeen, kanpoaldeko sistema dinamikokoetatik (gaur egungo Areetan) barnealdeko gazitasun txikiko hezeguneetaraino (adibidez, Boluekoa), tarteko gradiente guztiarekin. Edonola, hein txikiagoan gizakiak esku-hartutako paisaia zen orduan ere, eta sisteman zehar arrunta zen egitura antropikoak aurkitzea; hala nola kaiak, marea-errotak, polderrak, etab.

Espero daitekeenez, habitat ezberdin horiei lotuta basabizitza ikaragarri oparora egon zen: aingirak, ahateak, kuliskak, txirriak, kurlintak, karramarroak, izurdeak, itsas txakurrak...

Gaur egun, antzinako paisaia horren laginen parekoak ikusi nahiko bagenitu, Santoña, Muskiz, Gorniz, Urdaibai edo Txingudi moduko lekuetara hurbildu beharko genuke.

A Draught of the Coast of Biscay (Gabriel Baldwin, 1739).



Eztanda Jaialdia Aritza Saiz eta Endika Principe

«Helburua euskal kultura sustatzea eta herria egitea da»

TESTUA: IZARO GARCIA VELASCO ►

Batzuetan, gauzak ez dira egun batetik bestera sortzen. Pixkanaka heltzen dira, ideiak buruan bueltaka ibili ondoren. Halaxe gertatu da Urdulizen sortu berri den jaialdiagaz. Atzean sei lagun daude eta denek urteak daramatzate musikaren zein kulturaren bueltan. Horregatik, ez da hutsetik sortutako zerbait; Eztanda Jaialdia denboragaz heldu den proiektua da.

«Denbora asko neraman halako zerbait hemen egitearen atzetik», aitortu du Aritza Saiz antolatzaileetako batek. Beste leku batzuetan ikusitakoa ekarri gura zuten hona, Bizkaira, eta argi zuten hemen ere mugimendua eta interesa badagoela.

Hasierako ideia simplea izan arren, mami handikoa zen; musika ardatz hartuta, herrian errotutako zerbait sortzea zen asmoa. Izan ere, euren hitzetan, helburua ez da soilik jaialdi bat antolatzea, «euskal kultura sustatzea eta herria egitea» baizik.

Hain zuzen ere, horretan datza ekimenaren berezitasuna. Gaur egun nagusi diren makrojaialdien eredutik aldendu, eta beste bide bat hartu gura izan dute, hurbilagoa, apalagoa eta, batez ere, komunitateari lotuagoa. Endika Principe antolatzailearen hitzetan, «ez dugu nahi makrojaialdi eredura hurbiltzea; gurea beste zerbait da, hurbilagoa eta osasuntsuagoa».

Ikuspegi horrek eragin zuzena izan du erabaki guztietan. Prezioei dagokionez, antolatzailerek jendeak jaialdia bere sentitu behar duela sinesten dute; alegia, ekimena ez dela soilik negozio bat, baizik eta kulturarekiko konpromiso bat.

Filosofia hori kartelean bertan ere islatu gura izan dute. Ez dute izen handien zerrenda hutsa osatu gura izan, belaunaldi desberdinen arteko topagune bat baizik. Sarritan pentsatzen da gazteek aurreko belaunaldietaiko taldeak ezagutzen dituztela, baina, antolatzaileren ustez, ez da beti horrela. Horregatik, azpimarratu dute «talde gazteei lekua ematea eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzea» funtsezkoa dela.

Gainera, estilo desberdinak uztartzeko ahalegina egin dute, rockaren bueltan betiere, eta kanpoko taldeei ere lekua eginda. Hala ere, badago funtsezko irizpide bat: taldeek nolabaiteko lotura izan behar dute hemen



Eztanda Jaialdiak Urdulizko kaleak hartuko ditu ekainaren 5etik 6ra arte. HODEI TORRES

«Ez dugu nahi makrojaialdi eredura hurbiltzea; gurea beste zerbait da, hurbilagoa eta osasuntsuagoa»

ARITZA SAIZ ETA
ENDIKA PRINCIPE
EZTANDA JAIALDIA

Logistikari dagokionez, erosotasuna izan dute ardatz. Jaialdia metro geltokitik gertu egingo da, eta aste-akabuan gaueko zerbitzua egongo dela azpimarratu dute. Horrez gain, kanpin-gunea ere prestatuko dute, 250 eta 300 pertsona artean hartzeko modukoa. «Ondo lotuta dago dena», diote, jendeak erraz mugitzeko aukera izan dezan.

sortu gura duten giroagaz. «Talde guztiek nolabaiteko harremana izan behar dute Euskal Herriarekin edo hemen sortu nahi dugunarekin», diote.

Emakumeen presentziari dagokionez, Saizek eta Principek autokritika egin dute. Badakite ez dela beti erraza: «Erronka da talde onak egotea, eta horien artean emakumeen talde indartsuak sartzea».

Baina jaialdia ez da musikara mugatzen. Antolatzaileren arabera, «herria kontuan hartu behar da». Halako ekimen batek mugimendua sortzen du (jendea, zarata, egunerokoaren aldaketak), eta, horregatik, herriko bizitzan modu naturalean txertatzea da helburua. «Ez genuen nahi jendeak pentsatzea hau helduentzako bakarrik dela», diote. Horren adibide dira prestatuko dituzten jarduerak: umeentzako jolasak, espazio lasaiagoak eta familientzako proposamenak, guztiek euren lekua aurkitu dezaten.

BI URTEAN BEHIN. Lehen edizioa izan arren, begirada ez dute soilik orainaldian jarri. Etorbizuna ere buruan dute. Asmoa da jaialdiak jarraipena izatea, ahal bada, bi urtean behin, eta pixkanaka erreferente bihurtzea. «Ideia nagusia da honek jarraipena izatea», diote, eta, ahal bada, kultur jarduerak urte osoan zehar ere sustatzen jarraitzea.

Azken batean, Urdulizen sortu den jaialdi honek badu zerbait berezia. Kontzertu batzuk baino gehiago da: jendea elkartzeko aitzakia, kultura partekatze espazio bat eta herri bati arnasa emateko saiakera bat.

Eta, tira, ondo ateratzen bada, «herriak berak esango du honek jarraitu behar duen». ◀

Aitor Fdez. de Martikorena Sopelako Esaera Zaharren Txapelketako liburua

«Garrantzitsuena elkartzeta eta ondo pasatzea da, hori da euskara kalera ateratzea»

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Aitor Fdez. de Martikorena Rodriguezek Sopelako Esaera Zaharren Txapelketaren historia biltzen duen liburua argitaratu du. Ia hasieratik hainbat saiotan parte hartu eta gero, azken urteetan antolatzaile-lanetan ere aritu da bera. Apirilaren 25ean, txapelketa alai eta original honen 31. edizioa egin zuten, baina aurreko 30 txapelketetan ikasitakoa, ikusitakoa eta hainbat bertso eta esaera zahar bildu ditu argitaratu berri duen liburuan: *Sopelako Esaera Zaharren Txapelketa: edo nola (ez) antolatu herri-ekimenak*.

Txapelketaren 30. edizioa aitzakia ederra izan da liburua argitaratzeko, ez duzu uste?

Bai, lehen edizioa 1992an izan zen, baina bigarrena egin arte hiru urte pasatu ziren. Pandemia garaian ere bi urtez bertan behera utzi genuen. Beraz, lehiaketak 30 urte baino gehiagoko ibilbidea du, baina zapatu honetan 31. edizioa egingo dugu. Liburua ez da txapelketa nola antolatu behar den azaltzen duen manual bat, baizik eta urte hauetan egindako lanaren hausnarketa bat; autokritika ere badauka, gauzak nola ez diren egin behar ere azaltzen dudalako.

Liburuan aipatzen duzu askok izan dutela lehiaketa horren berri, baina antzik ere ez diotela hartu. Formatua kopia dutenek ez dute Sopelakoaren arima eskuratu edo?

Egon dira antzeko ekimenak inguruan; adibidez, Mungian ez dakit oraindik ere egiten duten, eta Plentzian ere egin zituzten txapelketa batzuk. Gero Euskal Herrian seguru antzeko hainbat egitasmo ere egingo direla, baina nik horiek ez ditut ezagutzen. Niri oso pozgarria iruditzen zait formatua beste leku batzuetan ere errepikatzea, liburuaren helburua hori ere badelako, baina bitxiene da zaharrenak irautea oraindik ere. ekitaldi txikiak egin ahal izatea.

Ekimen xumea izan arren, hainbat lagunek parte hartzen dute txapelketan, nola antolatu duzue?

Urte batzuetan 30 talde ere izan ditugu! Baina egia da oso aldakorra dela, batzuetan manifestazio bat edo Athleticceko partidua batekin kointziditu duelako, eta horrek eragin izan digu. Hala ere, erronka handia da



Hainbat urtez aritu da txapelketan, partaide bezala, zein antolakuntzan. HO DEI TORRES

Nolakoa da txapelketa?

«Nahiko gauza berezia da, ez baitago bertsoak eta esaera zaharrak uztartzen dituzten lehiaketa asko. Gurean, bertsolariak bertsoak esaera zahar baten inguruan eraiki behar dituzte, eta parte hartzaileek zein esaerari erreferentzia egiten dioten asmatu behar dute, hori da jokoaren muina. Ez da bertsolari txapelketa bat, esaera zaharrak ikasteko eta euskaraz jolasteko modu bat baizik. Probatzen dutenei asko gustatzen zaie, eta errepikatze gogoa izaten dute. Hori bai, lehiatzeko esaera zahar asko ikasi behar dira».



Irakurri ezazu elkarrizketa osoa www.hiruka.eus webgunean edo goiko QR kodigoa eskaneatuta.

antolakuntza aldetik, gure baliabideak urriak direlako: sei antolatzaile gara, horietatik lau AEKideak; bat sopoloztarra, bestea gorliztarra eta Getxokoak gara besteok, eskualdekoak gara beraz. Eskerrak AEK-k eta Sopelako Udalak ere laguntza ematen digutela.

Azken urteetan gazte asko animatu dira parte hartzera, eta hori oso pozgarria da. Belaunaldi aldaketa bat ikusten ari gara eta horrek bizia ematen dio proiektuari. Espero dut belaunaldi berriak ere antolatzeko erreleboa hartzeko prest egotea.

Zergatik da zaila gaur egun halako herri-ekimenak antolatzeko?

Agian gizarte indibidualista batean bizi garelako eta denbora falta zaigulako izango da. Dena azkar eta digitalki egin nahi dugu, baina halako gauzek dedikazio fisikoa eta denbora eskatzen dute: menuak pentsatu, bertsolariak deitu, musikariak ekarri, bazkaria antolatu... Garai batean paperarekin eta telefonoz egiten genuena, gaur egun konplexuagoa da. Hala ere, arrakasta handia izaten dugu, eta jendeak ondo pasatzen duela ikusteak merezi du.

Zer da txapelketa honek zuri eman dizuna?

Harrotasuna. Prozesu guztian parte hartzeak eta azkenean arrakasta duela ikusten duzunean, harro sentitzen zara. Ez da berez sortzen, lan handia dago atzetik. Nik oso ondo pasatzen dut, nahiz eta antolakuntzan sufritu. Mikrofonoa hartzen dudanean eta dena ondo doala ikusten dudanean, hori da nire saria. ◀

Berangoko Milia Saritua

Zortzigarrenez izendatu dute Berangoko milia estatuko proba onena

Berangoko Nazioarteko Miliak bere ibilbide arrakastatsuari beste mugarri bat gehitu dio, eta Espainiako Atletismo Federazioak (RFEA) 2025eko kategoria horretako proba onena izendatu du beste behin ere. Aitortza hau jasotzen duen zortzigarren aldia da, Berangok erdi-mailako distantziako proben artean duen lidergoa eta finkapena berresten duen aitortza.

Saria jasotzeko ekitaldia apirilaren 18an egin zuten Oviedon (Asturias), eta Berangoko alkate Itziar Aguinagalde izan zen bertan aintzatespena udalerraren izenean jasotzeko. Berango Atletismo Taldearentzat, antolatzaile nagusia den aldetik, lorpen hau «harrotasun historikoa» da, sari hau gehien eskuratu duen erakundea baita.

Aitor Cancio klubeko presidenteak nabarmendu duenez, saria ez da soilik lasterketa antolatzen dutenen kudeaketari egindako aitortza, baizik eta «herri baten identitatearen eta harrobiarekiko filosofiaren» isla. Cancio oso eskertuta agertu da ekitaldiari babesa ematen dioten eragile guztiakaz: «Berango urtero erdi-mailako distantziako proben hiriburu izaten jarraitzea ahalbidetzen duen motorra da». ◀

Skate Txapelketa Leioan

Hiri Kirolen Euskal Txapelketa egingo dute Leioan hilaren 31n

Euskal Herriko Skateboarding Batzordeak hitzordu garrantzitsu bat antolatuko du maiatzaren 31n Leioako skateparkean: Euskadiko Hiri Kirolen txapelketa. Egun horretan, roller, scooter eta skate modalitateetako kirolari trebeenak neurtuko dira ea akrobaziarik ikusgarrienak norik egingo dituen.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, txapelketa honek lehen aldiz aipatutako hiru modalitate horietan lehiatzeko aukera emango du, ikuskizun paregabea eskainiz.

Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea zabalik egongo da hilaren 26ra arte, baina skaterrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: federatuta egotea, 2014 edo lehenago jaio izana eta errendimendu-pasea duen erakustea. ◀

Pala Euskal Herritik Mundura txapelketa

Sopelatik aterako dira mundialera joango diren palistak

Pala profesionalaren esleipenak sortutako polemikak bizi-bizi jarraitzen duen bitartean, Argentinan jokatu den Munduko Txapelketarako hautaketa Sopelan hasiko da.

Pala profesionaleko gatazkak bere horretan jarraitzen du Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Frontoia kudeatzeko esleipena Jose Ramon Garai buru duen Giroa Baiko Eragin enpresari eman ostean. Palistek salatu dutenez, irregulartasunez beteta egon den prozesua «interes pertsonalek gidatutako 'txiringito'» bat izan da. Izan ere, kontratuak bukatu arte greban egon diren palistek babestutako Enaitz Olaetaren KTD enpresaren eskaintza baztertu zuen Aldundiak, bideragarritasun tekniko-ekonomikoak argudiatuta.

Iker Gordonek ere argi utzi du jokalariek egungo kudeaketagaz duten desadostasuna: «Ulertezina da emaitza txarrak izan arren Inn-pala enpresari kudeaketa ematen jarraitzea». Dena den, gatazka honen erdian, palisten arteko giroa «oso ona» dela azpimarratu du sopeloztarrak. «Hasieratik ideia berdinekin eta oso lotuta egon gara; gogorra da, baina gure esku dagoen neurrian, lanean jarraitzen dugu», azaldu du. Jokalarien batasuna da, hain zuzen, kudeaketa instituzionalaren talkaren aurrean duten babes nagusia, enpresaren profesionaltasun falta eta gardentasun eza salatu baitute behin baino gehiagotan. Gordonek erantsi duenez, errekurtso bat irabazita izan arren, Diputazioak ez ditu irizpideak edo arrazoiak azaltzen: «Ez dute inolako argudiorik».

FORMATU BERRIA. Erabaki horren aurrean, palistek eta Basquemotion izeneko enpresak formatu berritua dakarren txapelketa antolatu zuten martxoan, baita sarrera guztiak agortu ere. Bilboko Club Deportivon

egin zuten jaialdian, Esteban Gaubeka, Asier del Rio, Jagoba Mada-riaga, Ibai Perez, Roman Madonado eta Iker Gordon aritu ziren, besteak beste. Gainera, zesta-puntako Eraman! Jai Alai formatuari jarraituz, Janus Lester, Doctor Deseo eta Sorotan Bele taldeen emanaldiak ere izan ziren partiduakaz batera.

«Batean sarrerak agortu ziren bitartean, Innpalaren finalean ikusle kopurua oso urria izan zen, sarrera doan izan arren; egoera lotsagarria da», gaineratu du Gordonek.

MUNDIALA. Testuinguru zail honetan, kirolak aurrera egiten du, eta Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzak (EPPF) Euskal Herritik Mundura txapelketa aurkeztu du, 2026ko palako erreferentziatzeko hitzordua. Txapelketa hau Argentinan jokatu den Munduko Txapelketarako hautaketa-prozesuaren ardatz nagusia izango da.

Txapelketa honetan bi formatu izango dira: Larruzko Paleta eta Pala Motza. Bietan, kirolariek abiadura, teknika, indarra eta zehaztasuna erakutsi beharko dituzte, eta parte-hartzaile guztiak 1etik 4rako zenbaki bidez sailkatuko dira, eta bikoteak zozketa bidez ezarritako errotazio-sistemaren arabera aukeratu dituzte; beraz, ez da bikote finkorik egongo, lehiaketari pizgarria erantsiz. Txapelketa Sopelan hasiko da maiatzaren 8an, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat frontoitan jokatu ostean, finala Sopelan ere izango da ekainaren 6an.

Gordonek ez du ezkutatu txapelketa honen garrantzia, bereziki Sopelan, etxean, lehiatuko delako: «Finala Sopelan, etxean, jokatzeko eta irabazteko ametsa litzateke». ◀

SeXua



JUAN LUIS MUGERTZA UNANUE Irakasle ohia

Zer gutxi behar dugun gogoia pizteko! Izenburua irakurri, eta... Gaztetatik gure apopiloa da, eta harreman onak ditugu. Nahikoa da entzutea, edota irakurtzea, begien niniak dantzan ipintzeko. Baina zer dakigu bere lengoaiaz? Lehen, gurasoek ez ziguten aipatzen; bekatua zen. Gero, ezkutuan gure kabuz, fisionomiari (motxina, pikua...), tamainari (buztana, txitxarroa...) erreparatzen hasi gintzaizkion. Orain, sarritan ahotan hartu arren, asko dugu ikasteko. Esaterako, zenbat hitz erabiltzen dugu euskaraz sexuaz ohikoak kenduta (narrutan egin, astindu...) gure barruko sua itzaltzeko? Pentsamenduetan aberatsa da iruditeria, baina hitzetan? Pena da horrelako menua izanda osagaiak euskaraz ez jakitea. Badaude hitz asko apetitua bakarka asetzeko: kanpaia jo, partxisera jokatu... Emakumezkoek bikoterik gabeko saioetan arrainetarako joera handiagoa dute: antxoari eragin, txipiroia garbitu... Menua kontzertatua bada, eta bikotekidearekin goseX egonez gero, hasteko, betiko zizka-mizkak gomendatzen dira: zopa-jatea, mukiak jan... Hori bai, postreak segida baldin badu, seXguru egiteko, komeni langabetuaren zorroa izatea txapela janzteko. Bukatzeko, txitxarroa ezin tentetu bazaude, prostata, diabetesa, motibazioa falta... dela eta, gogoratu gaztetan egindakoaz, eta onartu apopiloak ere oporrak hartzeko eskubidea duela.

Ormuzetik Artatzara



HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Jauzi Ekosoziala

Estatu Batuak eta Israelek Iranen aurka abiarazitako gerraren ondorioak nabariak dira mundu osoan. Ormuzetik igarotzen munduko erregai fosilen % 20, eta gerraren ondorioz itxita daramatza hainbat aste. Inoiz baino agerikoagoa da gaur egungo gizarteak erregai fosilekiko duen menpekotasuna, eta, momentuz, prezio igoerak izan direnak etorkizun hurbilean erregai eskasiak izan daitezke: hegaldi batzuk dagoeneko bertan-behera gelditu dira.

Testuinguru honetan hainbat dira herrialde desberdinetan iragarri diren neurriak, baina badirudi shock honen berri oraindik ez zaiola ailegatu Bizkaiko Foru Aldundiari. Izan ere, apirila amaieran jakin genuen aurrera jarraitu nahi duela Subflubiala autobide proiektuarekin, eta lanak esleitu ditu prozesu judizial bat irekita egon arren. Proiektu honek, Artatza suntsitu eta Artaza-Romo institutua lekualdatzera behartzeaz gain, gure erregai fosilekiko menpekotasuna handituko luke. Hain zuzen ere, errepide berri honek «dei efektua» eragin eta autoaren erabilera handituko luke eskualde osoan. Ez al da zentzudunagoa garraio publikoa indartzea?

Nazioarteko shock-ak ez badira nahikoa proiektu anakroniko hau gelditzeko, kaleak bete beharko ditugu mezua helarazteko.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Barrura begiratzeko gogoia izango duzu hilabete honetan. Ondo dago, baina ez pasatu... Ispiluak ere nekatzen dira hainbeste begiratuta.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Energia soberan duzu, hori sumatzen da. Baina norabidea falta zaizu. Mugitu, probatu eta aurkituko duzu bidea.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Hazten ari zara, zure bertsio berri bat loratzen ari da. Baina lasai hartu. Ez zian beti hain serio; barre egiteak ere sustraiak sendotzen ditu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Lanean gogotsu, bai, baina gorputzak badu bere iritzia eta normalean ozenagoa da. Atsedean hartu eta gogatu maiatzeko argi izpiez.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure unea da. Dena ondo doala dirudi...Eta horrek susmo pixka bat ematen dizu, ezta? Lasai, oraingoan benetan dena ondo joango da.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Distira egingo duzu, baina eguzki gehiegi ere nekagarria da. Ez erre ingurukoak, edo bestela eguzkitako krema banatu beharko duzu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Pazientzia bai, baina gehiegi agian. Momentu egokiaren zain zaude, eta bitartean ihes egiten dizu. Beste norbaitek aprobetxatuko du.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Biharko uzten dituzu gauza guztiak. Bizitzak, ordea, ez du «bihar» botoirik. Azkar ibili edo beste batek hartuko du zure lekua.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Plan ugari, baina gero etxean geratzen zara. Selektiboa zarela diozu, baina denok dakigu alferkeria baino ez dela. Bada garaia onartzeko.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Tinko zaude, bai...gehiegi agian. Yogara apuntatu zaitzake edo luzaketak egin. Malgutasuna ez da ahultasuna!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Idea berriak dituzu eta bikainak dira. Baina orain praktikara eraman behar dira. Tira, seguru dena ondo aterako dela!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Barealdiaren aitzakian zaude. Atsedena hartzea ondo dago, bai, baina zuk daramazuna pixka bat gehiago da. Atera kalera eta mugitu gorputza.



«Bitxia bada ere, euskaldun asko gaude hemen»

IZARO GARCIA VELASCO ▶

Leioatik Pragara egin du jauzia Mainer Perezek, ikus-entzunezko errealizazio-ko ikasketak amaitzeko bidean. Zinema eskolan ari da praktiketan, eta atzerriko esperientzia honek bere ibilbidean aurrera egiteko aukera eman dio. Bere lehen hautua izan ez bazen ere, «oso gustura nago», dio.

Aukera ikasgelan sortu zitzaion; izan ere, aspaldiko nahia zuen kanpora joatea: «Betidanik nahi nuen Erasmus bat egin edo, gutxienez, denboraldi bat kanpoan pasa». Horrela, martxoaren 26an heldu zen Txekiar Errepublikara.

Hasierako egunak ikaskideakaz igaro zituen, eta haiekaz bizi da oraindik. Hala ere, hiriak laster zabaldu dizkio ateak. «Jendea ezagutzea super erraza da», dio, eta harrিতuta aitortu du topatutako askok euskaraz egiten dutela: «Bitxia bada ere, euskaldun asko gaude hemen; futbol partida bat ikusten ezagutu genuen elkar, eta denok euskaraz ari ginen».

Hizkuntzek, hain zuzen, arreta berezia piztu diote. Ingelesa da eguneroko tresna nagusia, baina txekierak ere jakin-mina sortu dio: «badi-

tu euskararen antzeko hitzak, eta dibertigarria da kartelak irakurtzea»; horiek «deskodetzea» eguneroko ariketa bihurtu zaio.

Bizimoduari dagokionez, eroso moldatu da. «Bizitzen jakinda, ez da garestia: leku turistikoetatik aldentuz gero, 10 euro inguruan jan daiteke», eta supermerkatuan ere ez du alde handirik sumatu Euskal Herriagaz alderatuta. Tokiko janaria gustuko du, zaporeak «nahiko potenteak» izan arren, baina «garagardoa oso merkea da, kafea baino merkeagoa», eta hori oso bitxia iruditu zaio: «Ez dago 4 euro baino gutxiagotik eskaintzen dizun kafetegirik».

Dioenez, giroa «Bilbokoaren antzekoa da, egunero atera zaitezke nahi izanez gero». Horrek egokitzea erraztu dio, baita eguraldiak ere: «Askoz euri gehiago egingo zuela uste nuen, baina hotza hezurretan sartzen zaizu», aitortu du.

Badira leku ezagunak, baina Mainerren esanetan «erloju astronomikoa ez da hainbestera-ko». Bere ustez, hiria bera da benetako altxorra.

Zalantzarik gabe errepikatuko luke. Pragan, Mainerrek ez du soilik ikasi; bere burua beste begi batzuek ikusten ere hasi da: «Guztiok izan beharko genuke halako esperientzia bat». ◀



Mainer Perez Iriondo


Nongoa
Leioa.

Adina
22 urte.

Zertan dabil
Praktiketan.

Noiz heldu zinen?
2026ko martxoan.

Noiz arte bertan?
Ekainera arte.



Lurraldea
Txekiar Errepublika.

Azalera
78.866 km².

Hiriburua
Praga.

Biztanleria
10.700.000 (2024).

Hizkuntzak
Hizkuntza ofiziala txekiera da, baina ingelesa, eslovakiera eta alemanera ere nahiko zabaldutak daude.

Moneta
Txekiar koroa (CZK).

Dirulaguntzak

Euskara ikasteko eta erabilera sustatzeko



ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ZABALIK!

- 1** Euskara ikasteko
- 2** Euskara ikasteko (6-15 urtekoentzat)
- 3** Gidabaimena ateratzeko
- 4** Aisialdiko begirale agiria lortzeko
- 5** Errotulazioa euskaraz ipintzeko

Kontsultatu baldintzak
www.getxo.eus/euskara



GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10

euskara.zerbitzua@getxo.eus

www.getxo.eus/euskara



Getxo
bizirik ez dago

Bizkaia
Foru Aldundia
diputazio foral



Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA



Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira.




TXANGURROA

NEKORA

OTARRAINA

IZKIRA

BUIA



Bakoitzari berea

Lotu itsaski bakoitzari bere izena.




bbk
KARPIN
FAUNA

ANIMALIEN BABES ZENTROA

Sudokua


Bete itzazu hutsuneak URPEKO hitza osatzen duten hizkiak behar bezala ipiniz (U, R, P, E, K eta O).
Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

U		O	E		
	K		R		
R				E	O
	O	E		K	R
K		R	O		
		U			P



Hirukoitza

Sarda honetan hamahiru arrain mota daude. Mota bakoitzetik bina arrain aurkituko dituzu, batetik izan ezik. Salbuespeneko arrain mota hori hirukoiztuta dago. Zein da?



SOLUZIOAK: AURREKO SOLUZIOAK

KUBOIA

Kubo bost egin nahiko genuke. Kubo bost osatzen duen artean kubo handia zaitzigu demen artean kubo handia osatzeko?

Bost
 Sei
 Zazpi
 Zortzi

POMINO ZERUTARRA

Zerutu zerutara hain diruzkoen sei gazak osatzen dira demino hain hiruak dira: gliboa, hodia, txoria, eurua, hegazkina eta euria.

ALdea dago!

Erreparatu ongi eurpeko irudi hau! Biek berdin-berdinak dirudiren arren, aldea dago berriz berria. Auki itzazu 12 ezberdintasunik.

Biki bi eta hiruki bat

Gozoa haur gurtien artean bikoiztuta dago. Hain da, bi aldir ageri dira. Eta beste gozo bat hiru aldir errepikatuta dago. Ez aurkitzen dituzun.

Lehen/Orain **Areetako zubiaren plaza 1915-1930, Getxo**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN ARTXIBOA

Uribitakora



TESTUA
Beñat Lopez
Arantzamendi

DOINUA
Mundu honetan
holako gauzak

ARGAZKIA
Hodei Torres

Sasiek jandako alorra

*Urteak pasa ahala aldatu
egin da herriko kaia
Lehen arrantzaren bidez txalupek
lortzen zuten bizigaia
Turistak dira itsasontziek
gaur dakarten ekipaia
Hemen bi egun igaro eta
gero jarraitu bidaia
Oxala uzten duten aztarna
balitz soilik erregaia.*

*Etiketik urrun egon daitezen
eroso eta seguru
Gure herriak beste askoren
itxura bera hartu du
Turismoaren ongizatea
ardatz bilakatu dugu
Miradoreak ere ontziei
begira jarri ditugu
Gu beti gaude beraiei adi
ta nork ikusten gaitu gu?*

*Transatlantiko hauena ez da
gu egoteko aparra
Gure kultura bilakatzen da
hola kontsumo azkarra
Folklore gisa saltzen duguna
iada ez da herritarra
Ta bitartean euskal kultura
apurka galtzen indarra
Ez al daukagu beste turismo
eredu baten beharra?*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**



**POLITEKNIKA
TXORIERRI**

HEGAN

EGITEKO AUKERAK

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa



**Zure superbotea garatu
Politeknika Txorierrin**

Eman izena
POLITEKNIKATXORIERRI.EUS



EH
MONDRAGON

IKASTOLAK HETEL

HEZUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

Lamiako Maskarada Auzo baten identitatea

ITURRIA: LAMIAKO MASKARADA (1996)



Lamiako, padura baten gainean eta lantegien gerizpean sortutako auzoa da, batez ere hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan lan bila iritsitako familien eskutik eraikia. Kanpotik etorritako jendeak osatu zuen auzoa, eta, neurri batean, horrek berak piztu zuen galdera bat: zer da, benetan, Lamiako? Sustriak bilatzeko gura horretatik sortu zen, hein handi batean, Maskaradaren hazia.

1976an hasi zen ideia mamitzen, Jose Luis Raymond gaztearen jakin-minetik abiatuta. Auzoaren jatorria ulertu gura izan zuen, eta bilaketa hori, espero gabe, proiektu kolektibo baten abiapuntu bihurtu zen; auzoari nortasun bat emateko saiakera bat. Hasieran galdera soil bat zirudiena pixkanaka dimentsio handiagoko egitasmo bilakatu zen.

1978an egituratu zen proiektua, jai herrikoi gisa, euskal mitologia eta auzoaren nortasuna sortzeko asmoz. Lamiaren irudia hartu zuten ardatz, naturagaz, musikagaz eta sorginkeriaz lotutako izaki mitologikoa. Baina oinarrian ez zegoen soilik mitoa; hau da, testuinguru sozial eta politiko gogorra ere bazegoen, frankismoaren ondorengo trantsizio garaikoa, non kultura propioaren berreskurapena eta aldarrikapena funtsezkoak bihurtu ziren.

Auzokideek berehala egin zuten bat ideia-gaz. Gazteak, batez ere, taldeka antolatzen hasi ziren: maskarak eta erraldoiak sortu, jantziak prestatu, musika landu... baliabide gutxigaz baina irudimen handiz. Lehen urteak prekarioak izan ziren —patata-zakuak jantzi bihurtuta edo mailegatutako materialagaz egindako muntaiak—, baina ilusioak eta konpromisoak hutsune materialak estaltzen zituzten.

Ahalegin horrek 1979ko maiatzean izan zuen lehen agerpena kalean. Ordutik, Maskarada ez da soilik ospakizun bat izan, baizik eta, daborduko esan bezala, adierazpen kolektibo bat: auzo industrial eta gris batean kolorea, sinbolismoa eta nortasuna txertatzeko modu bat. Maskarada «kolore tanta bat» izan zen Lamiakoren eguneroko grisaren erdian.

Urteetan zehar etenak eta berrabiarazteak egon ziren, baina 1987tik aurrera egonkortu egin zen, tradizio bihurtu arte. Auzoaren bilakaeragaz batera aldatuz joan den ohitura da, baina ez du hasierako espiritua galdu: herritik sortutako eta herriarentzat den ekimen bat izaten jarraitzen du.

Eta horrela ulertu behar da Lamiako Maskarada; hots, ez hutsetik sortutako festa gisa, baizik eta komunitate batek bere burua kontatzeko asmatu duen ospakizun bat bezala. Mitoa, historia eta egunerokoa nahasten dira bertan, auzo bati zentzua emateko ahaleginan. ◀



HIRUKA lagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Korrontziren emanaldia

Maiatzaren 30ean, Korrontzik mundua dantzan jartzeko ikuskizuna Muxikebarrin eskainiko du. Agus Barandiaran eta bere taldearen emanaldiaz gozatu gura baduzu, zeren zain zaude?

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 24a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Ibaizabalen liburu-sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, abenturaz eta fantasiaz betetako lau liburu eder hauek ditugu zozkatzeko. Galduko duzu horiek lortzeko aukera? Bada, eman ezazu izena zozketan!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 24a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zozketa

Karpinerako sarrera bikoitzak!

Naturaz eta animaliez inguratutako plan berezi bat gura? Karpinera joateko sarrera bikoitzak ditugu zuretzako, egun pasa ahaztezina bizitzeko aukera izan dezazun. Zure zain dituzu!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 24a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



TAUPA

eusfora

Unibertso euskaldunagoa
gure haurrentzat

0-12 urteko haurren gurasoentzat

● ● ●
Maiatzak 7-17



ETXEAN

etxekoekin egiteko

→ MISIOAK ←

Osatu pasaporteak!

HERRIAN

denok elkarrekin parte hartzeko

→ EUSPAZIOAK ←

www.getxoztarrak.eus

